

AUTODETERMINAZIOA: Faroe
uharteetako politikariek ez dute
presarik Konstituzio berria idazteko > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Aurreikuspenak aldatzen direnean
IÑAKI ALTUNA > 3

2018ko ekainaren 30a | XII. urtea • 575. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



GURE ZIRKUA, IKUSKIZUNA HAS DADILA!

BERE JAIOTERRIAN, AMEZKETAN, ESTREINATUKO DU IKER GALARTZA AKTOREAK TXIKITAN PIZTU
ZITZAION AMETSA. AMETS HORREK ZIRKU FORMA DU ETA BARRUAN GORDETZEN DITU
ALANBREA, TRAPEZIOA, MALABARAK, MAGIA... ZIRKU HANDIEN ERRITMOA ETA TXIKIEN
HURBILTASUNA ESKAINI NAHI DITU GURE ZIRKUAK . > 12 Juan Carlos RUIZ | FOKU



Faroe uharteetan Konstituzioa
idazten ari dira, presarik gabe 04

Ihes egiteko eskubiderik ere ez 09

Gure Zirkua, lehen zirku
euskaldunaren magia 12


Baratzea, eskolara 17

E.lkarrizketa: Patricia Maraña 22

Eurak eta gu? 26

In fraganti: Gindi Auzmendi, Iñaki
Landa eta Mikel Buruaga 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** «Euskal
estatuaren bidean»

10 **Oier Gorosabel:** Ikurrin urdin
eta beltzak

11 **Iñaki Altuna:** Aurreikuspenak
aldatzen direnean

16 **Unai Gaztelumendi**

20 **Gaizka Amondarain:**
«Debaldeko festa»

21 **Amagoia Mujika:** Haiek eta zu

25 **Joxean Agirre:** «50 best»

25 **Nekane Zinkunegi:** «Desbiana»

30 **Ana Elozegi:** Bizikidetzaren
suaren inguruan dantzan



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

«Euskal estatuaren bidean»

EH Bilduk antolaturiko “Euskal estatuaren bidean” jardunaldietan, Euskal Herriko eta estatuturik gabeko Europako beste herri batzuetako egoera eta esperientziak hobeto ezagutzeko aukera paregabea izan dugu. Eskozia, Flandria, Korsika, Katalunia, Irlanda eta Faroe uharteetako ordezkariak izan ditugu gurean, eta ariketa oso aberasgarria izan da, dudarik gabe errepikatu beharrekoa. Prozesu guztiak dira ezberdinak, ez dago errezeta magiko unibertsalik, baina, aldi berean, zenbat kezka eta bide partekatzen ditugun ikusteak lehen ondorio nagusi bat ekarri du: elkarlana areagotzeko beharra argi geratu da.

Diferentzia nabarmenena eta prozesuan eragin handiena daukana zein den oso argi dago: estatuen jarrera. Europa berdintsuaren baitan badira jarrera demokratikoa duten eta ondorioz erabakitze eskubidea aitortu eta errespetatzen duten estatuak; eta badira ere egiten ez dutenak. Argi geratu zen hori aipaturiko jardunaldietan. Eta horrek herri bakoitzeko eztabaida publikoa eta ekintza politikoa guztiz baldintzatzen ditu.

Eskozian, Flandrian, Irlandan edota Faroe uharteetan eztabaida oso pragmatikoa da: independentziaren aldeko gehiengoa nola eta noiz eskuratu eta independentzia bidean eman beharreko pausuen inguruan zentratzen da. Dudak ere agerikoak dira. Esaterako, gaur egungo egoeraren eta independentziaren artean, bitarteko agertoki juridiko instituzional berriak igaro behar diren edo ez. Flandriarrek baietz deritzote eta izen-abizenak jarri dizkiote proposatzen duten agertokiari: estatu konfederala. Eskoziako kasuan, berriz, ez dago argi garaian SNPk defendatzen zuen Devo-Max edo autonomia indartsuagoa egun oraindik ere beharrezkoa litzatekeen. Faroe uharteetako kasuan, hogeitaz hamar urte daramatzate Danimarkatik jasotako diru laguntza murrizten eta etorkizunean dependentzia ekonomiko hori guztiz desagertzea beharrezko pausu jotzen dute independentziarako bidean. Kanpo faktoreak ere aztertu genituen jardunaldietan, eta horiek izan dezaketen garrantzia.

Brexitak, esaterako, Irlandako batasun prozesua azkar dezake eta Eskozian bigarren erreferenduma aurreratu.

Erabakitze eskubidea errespetatzen ez duten estatuetan, estatuturik gabeko herrietako jarduna oso bestelakoa da. Demokrazia eza nola gainditu bilakatu baita eztabaida eta ekintza politikoaren muina. Proposamen eta jarrera politikoak ez dira libreak, ondo dakigun bezala, independentziaren aldeko jardunak ondorio lazgarriak ekar ditzakeelako. Argi dago, baina, Kataluniaren eta Euskal Herriaren kasuan behintzat, estatu ez demokratiko berdina pairatzen dugun neurrian, gure jardunak eta prozesuak gehiago sinkronizatzeko gai izango bagina gure irabazteko aukerak ere handitu egingo liratekeela. Sinkronizazio handiago bat izan daiteke, beraz, etorkizuneko estrategia irabazle baten oinarrietako bat.

Noizbait norbaitek European estatu berri bat eraikiko badu, nazioartearen aitortza eskuratu beharko du, bestela jai dauka. Ez da lan erraza, orain arte ikusi ditugun esperientziak ez dira oso positiboak izan. Bide horretan

Katalunian eta Euskal Herrian –estatu ez demokratiko berdina pairatzen dugun neurrian– jardunak eta prozesuak gehiago sinkronizatzeko gai bagina, irabazteko aukerak ere handitu egingo lirateke

Europako estatuturik gabeko herrien arteko elkarlana aztertu beharreko bidea dela argi geratu zen jardunaldietan. Norberak bere bidea jorratu behar duela argi dago, prozesu bakoitza bakarra den neurrian, baina estatuturik gabeko herrien kanpo politikan koordinazio edo sinkronizazio maila altuagoa izateak norberaren aukera partikularrak hobetu ditzakeen aztertu beharra dago, eta, horretarako, elkarlana indartzea behar-beharrezkoa da.

Europako estatuturik gabeko herriei dagokionez, duela hamabost urte inork gutxiak pentsa zezakeen azken urteotan ikusi ditugunak ikusiko genituenik. Gerezien garaia badator eta uzta emankorra izatea gutako bakoitzaren esku ere badago. •

AUTODETERMINAZIOA

Faroe uharteetako politikariek ez dute presarik Konstituzio berria idazteko

 POLITIKA / Ramon SOLA-Jose Angel ORIA

Faroe uharteak Danimarkako Erresumako parte dira ofizialki, baina, aldiz, Europar Batasunetik kanpo daude eta, esaterako, ez dizkiote Errusiari Bruselak agindutako isunak ezartzen. Ordainetan, Putinen herrialde erraldoiak arrantzarekin lotutako harreman komertzial garrantzitsuak ditu faroetarrekin, eta uharteetako biztanle askok Errusiako selekzioa animatzen dute egunotan, bihar GAUR8ko irakurle batek baino gehiagok egingo duen moduan.

Sjurdur Skaale Faroe uharteetako diputatuak Euskal Herria Bilduk Bilbon antolatu berri dituen jardunaldietan esku hartu du, Kopenhagek faroetarren erabakitzeko eskubidea errespetatu egiten

duela nabarmentzeko. A ze inbidia! «Faroetako jende gehien-gehiena independentziaren aldekoa da gaur egun, baina ez dugu horren beharrik eta, ondorioz, ez dugu presarik». Skaale parlamentariak horrela laburbildu zuen 50.000 biztanle dituzten irla horietan gaur nagusitzen ari den iri-

tzia. Eta *de facto* ia independente izatearen ondorioztat jo zuen egungo egoera Faroetako diputatuak Bilboko ekitaldian.

Bereziki deigarria da Faroe uharteen, Danimarkaren eta Europar Batasunaren artean sortzen den hirukia. Hori azaltzeko 1973. urtera jo behar dugu, orduan sar-

tu baitzen Danimarka europar estatuen klub handian, Irlandarekin eta Britainia Handiarekin batera. Faroe uharteen baldintza geografiko bereziak kontuan hartuta (ozeanoaren erdian daude, metropolitik kilometro askotara), Kopenhagek erabakitzeko eskubidea aitortu zion lurralde horri, bai eta hausnartzeko denbora dezente eman ere, Skaalek Bilbon gogorarazi zuenez.

PRESIORIK GABE ERABAKI

Europar Batasunean sartu ala ez biztanleen esku utzi zuen, presio handirik eragin gabe gainera. Pentsaezina espainiar erregeen mendean bizi garenontzat. Arrantzatza da bertako ogibide nagusia, eta hori kontuan hartuta, arau komunitarioak kaltegarriak izan zitezkeelakoan, ez sartzearabaki zuten orduan faroetarrek. Geroztik, Danimarka Europar Batasunaren barruan da, baina, Estatu horren parte diren Faroe uharteak, kanpoan.

«Seiehun urte daramatzagu Danimarkaren okupaziopean. Nahikoa da!», adierazi die kazetariari Birgir Enni gizon erretiratuak Torshavn hiriburuan. Berarekin bat egiten dute faroetar askok. Izan ere, uharteek naziotzat hartzeko moduko makina bat elementu dituzte: administratzen duen potentziatik 1.100 kilometrorra daude, bandera propioa dute (gurutze bat ageri da bertan, inguruetako bandera guztietan bezala), antzinako hizkuntza batetik datorren hitz egiteko modua, instituzio propioak eta beste inon ez dagoen kultura. Independentziaren aldekoak %50 baino gehiago dira, baina ez dituzte unionistak bazterrean utzi nahi, guztiek onartzeko moduko Konstituzio berria prestatzen ari dira elkarlanean, eta hori lortzeagatik apirilean aurreikusita zegoen erreferenduma atzeratzea erabaki zuten. Ahal zutelako!

Streymoy uhartean dago Torshavn
Faroetako hiriburua. Irudia
ekainaren 5ekoa da.
Pierre-Henry DESHAYES | AFP



«Ez gara daniarrak eta ez gara inoiz izango, ezin dugu daniarrak izan. Faroetarrak gara eta kito», adierazi izan du Poul Michelsen Aurrerapenaren Alderdiko buruak, egun Faroetako Atzerri ministro denak.

Historiak arrazoia ematen dio: gaur egun Estatu propioa izateko bidean den artxipelagoa Norvegiakoa izan zen bere garaian; Norvegiak, Suediak eta Danimarkak osatutako aliantzakoa aurrerago; eta Danimarkakoa azkenik, Hitle-rreren tropek Danimarka okupatu zuten arte. Egoera horretan, Britainia Handiak uharteak inbaditzea erabaki zuen, bestela nazien mendean geratzeko arriskua oso altua baitzen, hegoaldeko bizilagunen kaltetan, jakina.

«Independentzia egunero erakitzen da. Gero eta erantzukizun gehiago onartuta, independentziarantz hurbiltzen gara. Modu naturalean hazten da Danimarka eta Faroe uharten arteko distantzia», adierazi du Michelsen ministroak hiriburuan duen bulegoan. Dagoeneko erabakita dago migrazioarekin lotutako eskumenak Faroe uharten esku egongo direla, eta, hortik aurrera, Kopengageko agintarien esku geratuko dira kontu gutxi batzuk: defentsa, jakina, eta atzerri politikarekin, justiziarekin eta monetarekin lotutako eskumen batzuk. Gainera, guztia artxipelagoko ordezkarien esku geratuko da.

EZKERRA ETA ESKUINA ELKARLANEAN

Faroetako Gobernua Konstituzio berria idazten ari da uneotan. Nabarmenezkoa da uharteetako Exekutiboan ezkerreko eta eskuineko formazioak daudela elkarrekin, independentziaren aldekoak batzuk eta erabat unionistak besteak. Joan den apirilerako iragarrita zegoen testu horren inguruko erreferendum bat, baina atzeratzea erabaki zuten, bazterrean inor utzi nahi ez dutelako.



Goiko irudian, Vagar uharteko Sorvagsfjørour fiordoan lanean ari den arraintegia. Behekoan, belaontzi bat hiriburuko portuan.
Pierre-Henry DESHAYES | AFP

Faroetako Gobernua Konstituzio berria idazten ari da. Exekutiboan ezkerreko eta eskuineko formazioak daude elkarrekin lanean, independentziaren aldekoak batzuk eta erabat unionistak besteak

Teorian, Konstituzioa onartu ondoren, faroetarrak prest egongo dira independentziari bai ala ez esateko. Aksel V. Johannesen lehen ministroak GARari martxoan esan zionez, faroetarren Konstituzioak autodeterminazio eskubidea garbi azaltzen du, eta, hortik aurrera, Danimarkarekin edo nazioarteko erakundeekin dituzten harremanen inguruko kontu guztiei buruz kontsultatu egin beharko zaie herritarrei, nahi eta nahi ez.

«Danimarka ez da nagusi zorrotza», onartu du Hanna Jensen Aurrerapenaren Alderdiko sortzaileak. «Baina bere motibazio propioak ditu, behar eta interes propioak. Badakit geure behar, motibazio eta nahiak kontuan hartzen saiatzen direla, baina askotan beraienekin talka egiten dute», erantsi du.

Danimarka Europar Batasunaren barruan eta erresumako zati diren Faroe uharteak, aldiz, kanpoan. Paradoxa horrek, egunero-



Ekainaren 3an Torshavn hiriburuan egindako maratokia.
Pierre-Henry DESHAYES | AFP

OLINPIAR JOKOETAN ESKU HARTU NAHI DUTE FAROETARREK

Pal Joensen faroetarrak badaki zer den Olinpiar Jokoetan esku hartzea, Londresen eta Rio de Janeiron egindako ekitaldietan izan baitzen, baina ez bihotzean dituen koloreak defendatuz, Danimarkakoak baizik. Faroe uharteak FIFA Nazioarteko Futbol Federazioko eta nazioarteko beste erakunde batzuetako kide dira, baita Nazioarteko Batzorde Paralimpiarrekoa ere, baina ez dute lortzen azken berrogei urteotan eskatzen dutena: Olinpiar Jokoetan esku hartzea beren bandera propioarekin, Danimarkako ordezkari izan gabe.

Faroe uharteetan jaiotako Pal Joensenentzat oso erabaki arraroa izan zen 2012an eta 2016an hartu behar izan zuena: bere sustraiei eutsi eta Olinpiar Jokoetan esku hartu gabe geratu, ala Danimarkako banderapean desfilatu. «Nire barruak esaten dit ez dudala Danimarka ordezkatu nahi», esplikatu du 27 urteko igerilariak, Faroetako banderarekin lau aldiz Europako txapeldun izandakoa, igeriketa baita uharteek onarpen ofiziala lortu duten

kiroletako bat. «Faroe irlak ordezkatzeari harro egoteko moduko kontua da. Bat-batean hori egin ezinik geratzen zarenean, arazo emozionala sortzen zaizu», adierazi dio Joensenek France Presse agentziari Klaksvik hirian egindako arraunketa proba batean.

Faroe uhartearen independentziaren aldekoek zein aurkakoek bat egiten dute Olinpiar Jokoetara joateko asmoarekin. Horren aldeko kanpaina bat jarri zuten abian Londresko agentzia baten laguntzarekin eta badirudi herritar guztiak ados daudela.

«Neroni unionista naiz eta esan dezaket bihotz-bihotzez babesten dugula ideia. Ez da Danimarkaren eta gure arteko borroka bat», esan du Rigmor Dam Kultura eta Kirol ministroak. «Kultura eta kirolari dagokionez, independenteak gara, ez Danimarka. Geure hizkuntza propioa dugu, kultura propioa, geure historia, geure kirola», erantsi du.

Danimarkako Gobernuak eta Olinpiar Batzordeak urrats bat atzera egin zuten

Faroetakoen eskariei enbarazu ez egiteko. Baina egun arazoa ez da Erresumako agintarien jarrera, Nazioarteko Olinpiar Batzordearen Olinpiar Karta baizik. 1996an dokumentua aldatu zutenetik, esku hartu ahal izateko «nazioarteko komunitateak onartutako estatu independente bat» izan behar da, nahiz eta Puerto Ricok eta Birjina Uharte Britainiarrek (25.000 biztanle, Faroetako artxipelagoaren erdia) arazorik gabe esku hartzen duten (aldaketa gertatu aurretik onartu zituzten bi herrialdeak).

Faroe uharteetako kirolarientzat oso garrantzitsua izan zen FIFA Nazioarteko Futbol Federazioak 1998an onartu izana. Geroztik partida ugari jokatzeko aukera izan dute eta dagoeneko garaipen handiak lortuta dituzte: Austria eta Greziako selekzioei irabazi zieten, esaterako. «FIFArekin onarpena oso ona izan zen Faroe uharteetako futbolarentzat. Onarpen olinpiarra lortuko bagenu, kirol guztiek egingo lukete aurrera. Zeure bandera ikusten

baduzu, eta zeure ereserkia abestu, harrotu egiten zara eta zeure maila %400 igotzen da», adierazi du Atli Gergersen futbol selekzioko kapitainak.

Kirolak sekulako garrantzia dauka artxipelagoan. Hiru faroetarretik bat dago kirolen batean federatuta. Kopenhage Danimarkako hiriburura joateko bi orduko hegaldia egin behar dute. Beraz, beste kirolariekin batera aritzeko ia aukerarik ez dute izaten. Kirolari batzuek jarduera uztea erabaki izan dute, beren banderarekin aritzeko aukerarik ez dutelako. Signhild Joensen igerilariak 17 urte ditu eta dagoeneko gaindituta dauka Tokion 2020an egingo diren Olinpiar Jokoetara joateko eskatzen den marka minimoa. «Faroetarra naiz eta munduari nondik natorren erakutsi nahi diot, neure bandera erakutsi. Jokoetara Danimarkako taldearekin joatea ez litzateke gauza bera izango». Jon Hestoy Faroe uharteak Olinpiar Jokoetan onartzearen aldeko kanpainako presidenteordeak Nazioarteko Olinpiar Batzordeari jarrera aldatzeko eskatu dio: «Tira, olinpiar espirituari eutsi eta esku har dezagun, kirola egin dezagun!».



FAROE UHARTEAK

Guztira 18 uharte dira, horietako bat biztanlerik gabea. Ipar Atlantikoan daude, **Eskoziaren** iparraldean, **Norvegiaren** eta **Islandiaren** artean, metropolitik **1.100 kilometrorra**. 50.000 biztanle bizi dira uharteotan. Faroera **eskandinaviar** hizkuntza uhartetarra da, germaniar hizkuntzen taldekoa. 50.000 bat lagunek hitz egiten dute uharteetan, eta beste 25.000 inguruk Danimarkan. 1937az geroztik, faroera Faroe uharteetako **hizkuntza ofiziala** da. •

ko bizitzan, egoera bitxiak eragiten ditu, eta askotan Faroetako herritarrentzat onuragarriak izaten dira. Esaterako, Krimeako gatazkak Europar Batasunaren eta Errusiaren artean piztu duen krisia oparoa izan da irletako arrantzaleentzako. Bruselak ezarritako zigorrorei aurre egiteko, Moskuk Europar Batasunetik datozen elikagaiak erosteari uko egin dio... baina ez Faroetakoei, jakina. Izokina, gehienbat. Hain lurralde xume batentzat honelako erosle erraldoia izatea marka da gero!

Ulergarria da, beraz, Sjurdur Skaalek Bilbon azaldu duenez, Munduko Futbol Txapelketan uharteetako herritarrek Errusiako selekzioarekiko (baita auzokide duten Islandiarekiko ere) duten maitasuna, Danimarkakoari azaltzen diotena baina handiagoa. Parlamentari sozialistak esan zuenez, irletan ez da ia daniar Estatuaren ikurrik, eta Faroetako hizkuntza aurrera egiten ari da, Danimarkakoa atzeraraziz.

1973ko erabaki hark sarri aurrez aurre –eta buruz buru, nor baino nor– jartzen ditu Estatua eta estaturik gabeko nazioa. Skaale mintzo berriz: «Europar Batasunarekin zerbait eztabaidatu behar dugunean, kontu komertzialak batez ere, mahaiaren beste aldean Danimarka dugu negoziatzaile sarri». Baina, era berean, ukaezintzat du Danimarkaren bitartez Faroeak parte hartze zuzena duela nazioarteko gune erabakigarri askotan, eta, guztiz burujabe izanez gero, ordea, munduko iparraldeko txoko ezkutu batean guztiek

ahazturik egongo zela artxipelagoa. Kazetari, aktore eta kantari izan den parlamentariaren ustez, praktikan, «San Marino, Liechtenstein eta antzeko estatuak baino botere gehiago dute Faroe uharteek. Eta Euskal Herriak baino gehiago ere bai, zuek futbol selekziorik ere ez duzue-eta!».

KOPENHAGEREN ESTRATEGIA

Faroetako selekzioa 1988tik dago ofizialki onartuta eta Eurokopako eta Munduko Txapelketetarako sailkapen faseetan normaltasunez jokatzeko du (eta adi, bederatzi puntu batu baititu Errusiara iristeko lehian, Andorra, Hungaria eta Letoniaren aurka berdindu edo irabazi ostean). Gorabehera guzti horien ondorioz, faroetar gehienak egungo egoerarekin oso eroso sentitzen direla berretsi du Skaalek. Neurri handi batean, Danimarkak dagoen errealitatea onartu eta talka zuzena saihesten duelako: «Bere oraingo estrategia gu lasai bizitzen uztea da».

Ulergarria da, beraz, Munduko Futbol Txapelketan Faroe uharteetako herritarrek Errusiako selekzioarekiko (baita auzokide duten Islandiarekiko ere) duten maitasuna

Skaalek dioenez, «Europar Batasunarekin zerbait eztabaidatu behar dugunean, kontu komertzialak batez ere, mahaiaren beste aldean Danimarka dugu negoziatzaile sarri»



UHARTEETAKO LEHERKETA DEMOGRAFIKOA, BERTAKOEN OPTIMISMOAREN SEINALE

Ipar Atlantikoaren erdian dauden Faroe uharteek eskema asko apurtzen dituzte. Emakume izanda bizitzeko munduko lekurik onenetakoen artean daude, ia guztiek baitute lana, eta hala ere Europa osoko jaiotza tasarik altuena dute $-2,5$ umetik gora emakume bakoitzeko-. Marka hori ez da jaitsi azken hamarkadotan. «Planetako azken paradisua izan daiteke», esan zion BBC kateko kazetari bati Athaya Slaetalid orain zazpi urte Thailandiatik etorri eta Faroen ezkondu zen emakumeak.

Gauza guztiak daude urruti arroka bolkanikoz osatutako hemezortzi irla horietatik, baina bertako ekonomia ikaragarri ondo doa. Munduko Bankuak egindako txosten baten arabera, European daude emakume bakoitzeko bi ume izatera iristen ez diren herrialde gehienak, baina «arkumeen irlak» ezin dira herrialde horiekin alderatu. «Seme-alabak oparirik ederrena dira, nire ustez. Betidanik ume asko izan nahi nituen», adierazi du Gunnhild Helmsdal 41 urteko medikuak. Laugarren umea aurki jaioko zaio. Egungo senarrarekin batera bizi dira beste hiru seme-alabak, aurreko bikotearekin izan zuen alaba eta medikua bera. Aurki zazpigarren izena idatzi beharko dute etxe atariko buzoian. Torshavn hiriburuko Hoyvik auzoan dute etxe argitsua. Bertan hartu dute kazetaria: «Familia ugariak kaotiko samarrak izaten dira, baina zoriontsuak finean». Brandur bi urteko semea kantari ari da, helduei kasurik egin gabe. Bere izenak «ezpata» eta «sua» esan nahi du faroeraz (Faroe uharteetako hizkuntza ofiziala da 1937az geroztik).

Joensen/Helmsdaltarren etxea ez da ume asko dituen bakarra. Aurrean bizi diren auzolagunek sei seme-alaba dituzte; eta ondokoek, zazpi. Atzean geratu dira uharteetan oso emakume gutxi bizi ziren garaiak, batez ere lan merkatuan sartzeko aukerak gora egin dutelako. Orain urte batzuk arrantza zen jarduera ekonomiko ia bakarra eta bide horretatik oso zaila zen emakumeek lanposturen bat aurkitzea. Egun, aldiz, beste aukera asko sortu dira eta horri



Gunnhild Helmsdal haurduna pozik, familia mahaian inguruan bilduta duela. Pierre-Henry DESHAYES | AFP

esker «Faroe uharteetako jarduera profesionala Europa osoko altuena da, batez ere emakumeen artean», Hans Pauli Strom Faroeko Estatistika Institutuko soziologoak esplikatu duenez.

Balore kontserbadoreei eutsi diete faroetarrek, nahiz eta uharteak beti kanpokoentzat irekita egon diren. Baina gizartea aldatuz joan da eta beren emankortasunaren inguruan galdetuz gero, umore puntu batez erantzungo dute: «Hemen ez dago beste zereginik».

«Hemengo emakume asko lanaldi mugatuko langileak dira, erdia baino gehiago. Kontua ez da lanaldi osoko lana aurkitzeko arazoak dituztela, baizik eta nahiago dutela horrela egitea, bizimodu horren alde egiten dute», Stromek azaldu duenez. Agintariekin umeak izan

nahi dituzten herritarren aldeko neurriak hartzen dituzte: 46 asteko amatasun eta aitatasun baimenak (aurki urtebetekoak izango dira), haurtzaindegi merkeak, zergak ordaintzeko garaian erraztasunak... Gainera, zazpi eserlekuko automobilerik gainerakoek baino zerga gutxiago ordaindu behar izaten dute, familia osatzea errazagoa izan dadin.

Faktore horiek esplikatzen al dute faroetarrek horrenbeste ume izatea? Strom soziologoa ezezkoan dago: «Geure kulturen, pertsona bakoitza familia bateko kide moduan ulertzen dugu, banakako independente moduan hartu beharrean. Belaunaldien arteko harreman estu eta intimo horrek umeak izatea errazten du». Adituaren iritziz, erlijioaren eragina oso txikia da. Iritziz

berekoa da Gunnhild Helmsdal: «Familian hain lotura estua dugulako, elkarri asko laguntzeko joera dugu. Gainera, nire gurasoen etxea hamar minutura daukat, oinez joanda, eta horrek ere asko laguntzen du».

Thailandiatik eta Filipinetatik ehunka emakume etorri dira Faroera azken urteotan. Kasu gehienetan uharteko gizonekin ezkontzera etortzen dira eta oso ondo daude orain, nahiz eta onartzen duten Asiako hego-ekialdeko bero tropikaletik Ipar Atlantikoko hotz ikaragarria pasatzea oso gogorra egin zitzaizela. «Jacob jolasean ari da hondartzan, inguruan ardiz beteta dauden mendixkak ditu eta aiton-amonak bertan bizi dira. Ez dago ez kutsadurarik ez krimenik. Egun ume gutxi dute horrenbeste munduan».



Mahmud TURKIA | AFP

IKUSMIRA

IHES EGITEKO ESKUBIDERIK ERE EZ DUTEN GIZAKI HORIEK

Errefuxiatuak etenik gabe iristen dira mundu aberatsaren mugetara, bizi nahi dutelako. Bruselan egunotan elkartu dira Europar Batasuneko agintariak asilo politika berraztertu eta aurreko gailurretan agindutakoa ez dela bete baieztatzeko. Eta muga horien beste aldean gizartearen beheko aldean dauden herritar asko bel-

durtuta bizi dira, hedabide arduragabeen eraginez, kanpotar horiekin batera beraien hondamendia ere iritsiko delakoan. Eskuinak -zenbat eta muturrekoagoa izan, orduan eta hobeto- oso ondo baliatu du egoera bere posizioa indartu eta ezkerre ahultzeko. Europan, alderdi asko gaiarekiko jarrera aldatzen hasiak dira, botoei eutsi nahian, baina horrenbeste errefuxiatu eragin dituzten arazoak kontuan hartu gabe. Esaterako, gerren sorreran armagintzak duen erantzukizuna aztertu gabe. Jendeak ihes egiten jarraituko du; eta ezkerrekoak omen diren alderdiek, botoak galtzen. Hori bai, arma lantegiek lanean segituko dute. joseangel.oria@gaur8.info

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Aurreikuspenak aldatzen direnean

Ez dira aste asko oso bestelako egoera bat genuela. Orduko aurreikuspenak argiak ziren. Alde batetik, ETaren desagitea espero zen, ezker abertzaleak hasitako bidean barrena eta abiarazi beharreko prozesu politikoaren mesedetan. Beste batetik, PPren Gobernuak bere horretan jarraituko zuela pentsatzen genuen, are gehiago EAJk aurrekontuak babestuko zituela gero eta argiago ikusten genuenean. Rajoyri egonkortasuna ematea helburutzat finkatu zuen EAJk, Ciudadanosen mamua uxatzearen. Ezin daiteke esan jeltxideek oso helburu handiak zituztenik, ez horixe. Estatuen zentralizazioa eskatzen duten ahotsak apaltzeko Urkulluk gero eta otzanago agertzeko borondatea erakusten zuen, horretarako Kataluniako prozesuari bizkarra emateraino.

Presoen auzian ere egoera zaila zen. Parisko Gobernua kartzela politika aldatzen hasia zen arren, PPko Gobernua gogor zegoen berean. Are gehiago, ETaren azken erabakiaren ostetik berriro ere bere eskaera maila igo zuen. ETaren desagitea gertatu bezain pronto kartzela politika aldatuko zuela esana zuen, baina egoera hori iritsita Gobernuak hitza jan zuen berriro ere. Gobernuaren jokabide horrek ez zuen, horratik, inor ezustean harrapatuko. Ezta ETA ere, Iñaki Sotok egindako azken elkarrizketa luzea irakurrita ondoriozta daitekeenez.

PPk ez zuen berehala mugitzeko asmorik, urteotako tesi nagusiari eutsiz: gatazkaren ondorioen konponbidea kateatuta edozein prozesu politiko oztokatuko luke. Denborak aurrera egin ahala, aldaketarik etor zitekeen, sortutako egoera berriak indar harremanetan eragina izan baitzezakeen. Izan ere, presoen afera ezker abertzalearen afera baino ez zela zioen tesia ere ez zen hain sinesgarria. Ipar Euskal Herrian Paris mugitzeko sortutako adostasun zabalak, adibidez, oso irakurketa ezberdina eskaintzen zuen.

Nolanahi ere, epe laburrean ez zen eremu horretan mugimendurik espero. EAJk eta Urkulluk Rajoyri emandako babesak ez zuen horrelako ordainik izango. Aurreko urteetan bezala, Rajoyrentzat jeltxideak pisu gutxikoak ziren termino politikoetan, ez baitzuten bere norabide estrategikoa baldintzatzeko gaitasunik. 2011tik hona, EAEko lehendakariak Espainiako presidentearekin euskal auziari buruz adostasuna lortzeko mintzaidetzat aurkeztu du bere burua, baina Rajoyk ez dio erantzunik ere eman. Estatuen aurrekontuen gainean lortutako azken akordioak ere gatazka politikoaren muinetik urrun kokatu dira. Dirua baino ez zen izan eztabaidagai Madrilentzat. Ez esku-menen transferentziarik, ez estatus politikoari buruzko elkarrizketarik, ez gatazkaren ondorioei buruzko urratsik... Nonbait, modu ulergarrian esateko, abiadura handiko trenarentzat dirua izan da lehentasuna jeltxideentzat, proiektu horri buruzko zalantzak gero eta nabarmenagoak izan arren. Kezka azaltzen azkenekoa Europako Kontu Auzitegia izan da. Lakua-ko arduradunek hainbeste oharpeni entzungor egiteak zer pentsatu ematen du.

Zentsura-mozioa etorri zen, ordea, eta aitaren batean egoera aldatu da. Rajoy historia da eta Sanchez da Espainiako presidente berria. Hauteskunde giroaren eraginpean, agintaldia ahal bezain beste luzatu eta Gobernua erabili nahiko du bere burua indartzeko. Eta horretarako mugimenduak egiteko beharra du, harreman berriak sortzeko eta egoera batzuk argitzeko. Horrela, euskal presoen gaia ere agendan duela adierazi du. Modu adierazgarrian, aitortu beharra dago.

Maila batean, itxaropena ekarri du iragarpenak, are gehiago PPekin zeuden aurreikuspenekin alderaketa egiten bada. Mugimendua egotea positiboa da, baina mugimendu horren norabidea eta sakontasuna dira benetan garrantzitsuak. •

Mugimenduak egiteko beharra du Sanchezek [...] Horrela, euskal presoen gaia ere agendan duela adierazi du. Modu adierazgarrian, aitortu beharra dago

GURE ZIRKUA ABIATU DA

Lehen belaze bat zegoen lekuan karpa bat dago eta barruan magia gertatuko da

 **KULTURA /** Maider Iantzi Goienetxe

Iker Galartzaren proiektuak zirku handien erritmoa eta txikien hurbiltasuna eta goxotasuna eskaini nahi ditu, hainbat diziplina erakutsi –alanbrea, trapezioa, malabarak, magia...–, heldu eta umeei oilo ipurdia jarri, irria atera. Lehen zirku euskaldunak Amezketan zabaldu du karpa; heldu den asteen Aiara joanen da, eta herriz herri ibiliko da urrira arte.


Umetan sor-
gindu zuen
zirkuak Iker
Galartza.
«Egunen ba-
tean...», pen-
tsatzen zuen, «... halako zerbait
posible balitz... Baina oso zaila
izango da». Denbora pasa eta

behin 40 urterekin bi aukera
ikusi zituen: zeukanari eus-
tea –«familiar, lanari eta
abar»–, edo gauza berriak sor-
tzeko ilusioari segitzea. «Zer-
gatik ez?». Gogotsu harrapatu
zuen eta aitzinera jo zuen.
«Ez nekien ondo zer egin,
nola egin... Baina karpaxo bat

Gure Zirkuko artista
taldea, karpa barrenean,
estreinaldia baino egun
batzuk lehenago,
entseatzeko. Lehen
planoan, Joseba
Usabiaga.
Juan Carlos RUIZ | FOKU

erosteko aukera izan nuen –Es-
tatu frantsesera, ia Luxenbur-
gora joan zen bigarren eskuko
baten bila, aluminiozkoa, ari-
na–, eta uste dut oraintxe dela
momentu ona. Telebistan la-
nean ondo ari naiz, antzerkia
ere asko egiten ari nintzen az-
kenaldian... Nirekiko esaten
nuen telebista ez dela betiko
izango eta horri begira egotea
ere ez zait gustatzen. Nire ilu-
sioak betetzeko gogo dut».

Telebistan jarraituko du ha-
lere. «Nire ogibiderik inpor-
tanteena eta bakarra hori da.
Zirkuak oraingoz gastuak bes-
terik ez dizkit eman. Hiru ur-
teotan zertxobait aurretzen
banuen bafletxo pare bat eros-
ten nuen, gero bi foku, eta ha-
laxe joan naiz gauzak osatzen.
Gero badaukat berriz ere an-



tzerkira bueltatzeko gogoa, baina uneotan nire energia guztia zirkuan jarri behar dut. Aldaketak batzuetan halabeharrez izaten dira, baina beste batzuetan batek nahita, eta aldaketak onak dira, hala ez gara usteltzen». Hala hasi zaigu solasean aktore amezketarra begiak pizten dizkion proiektu berriaz. Lagun onez inguraturta hasi du abentura. Etxekoak, Poxpolo eta Konpainiako lagunak eta kuadrillakoak ondoan ditu. «Zeinek esan zirkua muntatzen eta desmuntatzen ikasiko zutenik, baina halaxe ikasi dute. Esker ona adierazi besterik ezin dut egin. Eta guztiak afari batera gonbidatu!».

Joseba Usabiagarekin harrapatu dugu lokalean lanean. Alanbrea, krispetak egiteko makina –krispetak egiten ikasten ari dira, zirkuan eskaintzeko–, trapezioa, koltxoneta, hamaika objekturen artean solastatu gara Galartzarekin.

ERREPIDERA ATERA ETA INPROBISATU

Tolosako zezen plazan egin zuten proba joan den irailean, eta primeran atera zen. «Ez diot meriturik kentzen, baina erraztasunak besterik ez genituen aurkitu: eroso geunden, dena eskura genuen, herrian bertan ginen... Orain, errepidera aterako gara eta inprobisatzen jakin beharko dugu. Seguru ezusteak suertatuko direla eta konpontzen joan beharko dugu, asteburua iritsi eta emanaldia egin beharko baita».

Artistaren jaioterrian, Amezetan, altxatu dute karpa asteburu honetarako. «Niretzat oso berezia eta inportantea da. Are inportanteagoa beraiek deitu izana honen berri izan zutenean. Herrian jendea ilusionatuta dago».

Alanbrea, malabarak, eskuz eskuko akrobaziak, trapezioa,



Gure Zirkuko kide bat, oihalarekin numero ikusgarriak entseatzen. Juan Carlos RUIZ | FOKU

magia, pailazoak eta zuzeneko musika eskainiko dituzte atsedetik gabeko emanaldian. «Ordu eta hogeit minutuko emanaldi dinamikoa edukiko dugu eta hor erritmoa gelditzeak pena handia ematen dit, jendea eroso dagoenean».

Lehen zirkua euskaldunak iturri askotatik edan du. «Zirkua handiek duten erritmoa jartzen saiatu gara, baina zirkua txikiek duten goxotasun eta gertutasunarekin. Iparraldera gerturatu besterik ez dago, zirkua familiar pila bat dago. Familia bateko bospasei kidek dena egiten dute. Horietan faltan ematen dira espezialistak diziplina batzuetan. Lehenengo urtean behintzat, ahalik eta diziplina gehien erakutsi nahi ditut, eta zirkuan oso-oso zaharrak diren numeroak».

PUBLIKO GUZTIARENTZAT

«Aspertzen naiz esaten eta jendea animatzen, baina ez dut etsiko. Batek esan zidan atzo: 'Ea alaba etortzen den umeekin oporretatik zirkura joan ahal izateko, bestela amona eta biok ezin joango gaituk, umerik ez zeukaagut!'. 'Etorri umerik gabe, fenomeno pasako duzue, barre egingo duzue, oilo ipurdia jarriko zaizue, gauza horiek denak bizitzeko ez dago ume bat ondoan eduki beharrik', erantzun nion. Gazteak ere etorri zirkura, ez zaizue damutuko».

Galartzari gustatzen zaio publiko heldua eta batzuetan emanaldiak berandu jartzen ditu, 21.30ean, etortzera bultzatzeko, baina ezin da gehiegi arriskatu. Egunero 19.00etan jarri dute eta gaur 21.30ean. «Jende horrek zorte hori edukiko du, gauez zirkuan egon ahal izango da». Ordutegiak moldatzen joango dira. Artista gehienak bertan geldituko di-



ra lotan, Euskal Herriko kanpin dendarik handiena dutela baliatuta.

DIRU LAGUNTZARIK EZ

Eusko Jaurlaritzan hutsune bat dagoela erran diote Iker Galartzari diru laguntzez galdetu duenean. «Arte eszeniko-entzat bai, baina zirkuarentzat ez». «Barkatu? Eta gurea ez da arte eszeniko bat? Ez da proposamen kultural bat? Berritzaileak izatea eskatzen ari zarete eta ez duzue hau aintzakotzat hartu behar?». Zur eta lur dago Gure Zirkuaren sortzailea.

«Jaurlaritzakoak esaten zidanean ‘ez dago’, erantzun nion ‘bale, zuekin edo zuek gabe, egingo dugu, jendearen laguntza eta borondateari esker, herritar askori esker’. Lagunak, erremintak ekarri dizkiguten herriko erretiratuak, pintatzen lagundu digutenak, egurra mozten. Dena jende horri esker egin da, eta artistei esker.

Ez dute kobratzen beharko luketena, ez da duina».

Herri batzuek atepak zabaldu dizkiete parez pare; bertzeek, berriz, itxi. «Zirkua mundu guztiari gustatzen zaio, baina instituzioetan txurreria, feria eta barraken kategorian gaude –salatu du Galartzak–. Nahi duzu merke jartzea, euskaraz egitea, gure herrian, gure herritarrentzat, lehendabiziko aldiz karpa ibiltari bat Euskal Herrian zehar, nahi duzu ahalik eta leku gehienetara iristea... Baina 260-270 lagun kabitzen dira eta ez dugu sarrera 30 euroan jarri nahi. 10-12 euroan jarriko dugu eta pertsona bakoitzaren euro eta erdi horretatik biziko gara».

Gure Zirkukoak garai bateko komikoen antzera dabilta. «Hauek beren fokutxoak jartzen zuten eta bazekiten filtro bat jartzen eta autoari gupila aldatzen. Orain aktoreok nahi duguna da ondo kobratu, or-

dezkari bat eduki lana bilatuko diguna, *bideobook* polit bat eduki, eta gero grabatzera platora joan, kafe makina ondoan eduki, eta ondo kobratu eta asteburuak, gainera, libre eduki, Port Aventurara joateko eta hondartzan eguzkia hartzeko... Niri ere gustatzen zait», aitortu du irriz. Baina aurten ez du asteburu librerik urrira arte.

Amezketaketa, Aia, Zumaia, Ordizia... tantaka ematen ari dira hurrengo geltokien berri, jendea mugitzea nahi baitute. Os-

«Zirkua mundu guztiari gustatzen zaio, baina instituzioetan txurreria, feria eta barraken kategorian gaude. Jendearen laguntzari eta artistei esker egin dugu aurrera»

Ordu eta hoge minutuko emanaldi hagitz dinamikoa eskainiko dute, atsedenaldirik gabe. Amezketaketa, Aia, Zumaia eta Ordizia dira bisitatuko dituzten lehenbiziko herriak

Gure Zirkuaren karpa, Amezketako paraje ederrean, ikuskizunerako prest.
Juan Carlos RUIZ | FOKU

tegundetik igandera izanen dituzte emanaldiak, eta, muntaketa eta desmuntaketa lanak kontuan izanda, aste osoa emanen dute herri bakoitzean.

HOBETZEN JARRAITZEKO PREST

Bira hau gutxi gorabehera itxia dute, baina aurrera begira interesa duen edozein herritarara pozarren joanen dira. Zirkua konpletoa da. Artistek pixka bat denetik egiten ikasten dute eta ikasteko asko dagoela jabetzeko ere balio du. «Badu zerbait hor barruan sartzen zarenean, magia bat, denak goxo jarrita. Lehen belazea eta behiak zeuden lekuan, orain karpaxo bat dago. Gure herrira etorri da eta hor barruan zerbait gertatuko da eta ikusi nahi dut, hor sartu nahi dut. Hor barrura sartzea magikoa da».

Zirkuari barrenetik begira ari zela, kontu kontari jarraitu du ordenagailuan webgunearen izena idatzi bitartean: Gurezirkua.eus. «Nirekiko esaten nuen: polita dago, baina kaiola bat ere ematen du. Maindiretxo batzuekin buelta guztia apainduko banu? Hori hurrengorako. Zirkuak zer du? Beti dago zer hobetu». Argazkiak ere erakutsi dizkigu. Publiko-enganako hurbiltasuna ikusten da. Umeak, gurasoak, aito-na-amonak, gazteak... Denak barrez eta hunkituta.

Euskal Herriko zirku artistentzat erakustoki bat da Gure Zirkua. Momentuz artistak bertakoak dira, baina zirkua zerbait bada nazioartekoa da eta denei irekita dago. «Bira bukatzean, karpa jaso eta asmoa da Tolosako zezen plazan jartzea, emanaldietarako: txotxongiloak, ipuin kontaketak, kontzertuak...». Zirkuak aukera hori ematen du eta zabalik daude horretarako ere.

«ASVINENEA EZAGUTARAZTEA ETA JENDEARENGANA IRISTEA LORTU DUGU. IZUGARRIA IZAN DA TOPAGUNEA»

Asvinenea arte eszenikoen sustapenerako laborategia orain hamabost urte zabaldu zen, Aduna eta Andoain arteko inguru paregabe batean. Maitasun handiz eraikitako txoko honetan hainbat diziplina nahasi izan dira: txotxongiloak, *clown*-ak, antzerkia, dantza afrikarrak... Azken urteotan, zirku teknika aunitzen topagunea da. Iker Galartzak bertako artistekin lan egin izan du Poxpoloren emanaldietan eta Gure Zirkuarekin hasi zenean laborategikoak bete-betean inplikatu ziren. Aste Santuan Tolosan egin zituzten tailerrak beraiek eman zituzten. «Eurentzat egiten duten lana erakusteko aukera on bat da, eta Gure Zirkuari ere oso ongi datorkio. Talde bezala ongi antolatuta daude eta egonkortasuna ematen digu horrek», adierazi du Galartzak.

Erantsi duenez, lan pila bat egiten dute Asvinenean, baina inor gutxik jakin du horren berri. Ekainaren 11tik

17ra egin zen “Asvinenean topa!” arte eszenikoen lehen topaguneari esker, hori aldatzen hasi da. Garazi Pascual kable gaineko orekan ibiltzen den Asvineneako kideak, Gure Zirkuako artista ere badenak, hala kontatu digu: «Izugarría izan zen, benetan bete dugu helburua: jendearengana iristea, bai artista profesionalengana eta bai herritarrengana. Astelehenean hasi ginen eta pentsatzen nuen lasai ibiliko ginela, pixkanaka etorriko zela jendea, baina lehenengo egunetik lagun pila bat inguratu zen deskubritzera eta probatzera eta klaseak gainezka egon ziren. Astearte goizean hamar pertsona egon ziren klasean, ezin nuen sinetsi! Aste osoa oso ondo joan zen. Ostiralean kabareta egin genuen, jendea etorri zen eta maila handia egon zen».

Larunbatean aje pixka batekin zeuden baina klaseak aurrera atera ziren, eta igandean *clown*-eko kurtsoa ongi atera zen. Ikuskizun batekin eman

zioten amaiera topaketari, eta familiak agertu ziren ume pila batekin.

Xedeak gainditu dituztela azpimarratu du Lasturkoak: «Giroa, maila, espazioa ezagutaraztea, otorduak... Irabaziak atera ditugu bai ekonomikoki bai pertsonalki, espazioarentzat ere bai. Jendeak interesa agertu du bazkide egiteko. Kabaret gehiago antolatuko ditugu, urte osoko klaseak... Irakasleak ere oso gustura gelditu dira eta Asvineneara bueltatzeko gogoia dute. Proposamenak jaso ditugu ikuskizun bat egiteko, beste batek klase bat eman nahiko luke... Benetan iritsi gara nahi genuenera, Asvinenea ezagutaraztera».

Denetariko lagunak etorri dira, adin desberdinetakoak. «Guztiei ireki diegu, probatzeko, eta iritsi da. ‘Ahal dut’, pentsatu, joan eta egin egin dute. Iruñetik, Bizkaia aldetik, Gipuzkoatik, Gasteizetik etorri dira. Maila guztietako jendea egon gara eta denak oso ondo

moldatu gara. Partekatu dugu, elkarrengandik ikasi, giroa sortu, jendea ezagutu...». Batzuk lotan ere gelditu ziren. Egunero gutxienez 20 lagun egon ziren denbora osoan Asvinenean eta giro ederra sortu zen.

«Sukaldean ibili direnak, klaseetan parte hartu dutenak, irakasleak, espazioak... Ikaragarria izan da parte guztiek berea eman izana topaketa ongi ateratzeko. Gozatuz, ikasiz eta partekatuz egin dugu, gainera. Osotasun bat egon da eta horrek egin du zoragarria izatea lehen topaketa hau, inprobisatua, zero euroko aurrekontukoa, maitasunez eta gogoz egina. Hori nabaritzen da, eta iritsi da».

Aurrerantzean, zer? Tailerrak, kurtso intentsiboak, kabaretak eta ikuskizunak egin nahi dituzte. Espazioan mugimenduari eusten saiatuko dira, Asvineneari bizia ematen. Gure Zirkuari ere ibiliko da Pascual. Dioenez, bi proiektuek izugarrizko bultzada emanen diote zirkuari leku bat izan dezan. Mila amets dituzte eta horietako bat bete dute jada. «Erantzunak esan nahi du jendea hor dagoela eta zirku nahi duela».



«Asvinenean topa!», arte eszenikoen lehenbiziko topagunea ekainaren 11tik 17ra egin zen Adunako zirku laborategian. Jon URBE | FOKU



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



ZER JAN, HURA IZAN

«Baratzeak dituzten eskolak baino, eskolak dituzten baratzeak behar ditugu»

HEZKUNTZA / Amagoia Mujika Telleria

Baratzea da dena». Jakoba Errekondo paisajista eta ingeniari agronomoak oso garbi dauka. «Nik bizitzan ikasi ditudan gauza guztiak baratze batean esplikatuko nituzke». Horregatik, baratzeak dituzten eskolak baino, eskolak dituzten baratzeak behar direla uste du usurbildarrak.


Aste honetan Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroetan jardun du, Donostiako Miramar jauregian, «Elikadura burujabetza hezkuntza formalean lantzeko erremintak» ikastaroan. Euskal Fondoak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak lagundu eta zuzendu dute ikastaroa eta EAThink proiektua izan du ardatz nagusietakoa.

EAThink proiektua 2015. urtean abiatu zen. «Bertokoa jan, mundua buruan» lelopean elikadura burujabetza eta kontsumo arduratsua txikitatik lantzea du helburu nagusia eta horretarako eskoletan lantzeko erremintak eskaintzen ditu, material didaktikoak eta bestelako tailerrak.

Hartara, Euskal Fondoak eta Errekondoren Bizi Baratzea proiektuek bidean topo egin dute eta indarrak batu dituzte, mundu ikuskera partekatzen dutenen konplizitatearekin.

«Ez da makala ikastetxean baratze bat lantzeak dakarren erronka, baina ez dira gutxi horrelako hezkuntza proiektuak gauzatzera animatu diren ikastetxeak eta pertsonak», nabarmendu dute proiektuaren arduradunek. Eskola bakoitzak ezaugarri propioak eta jarduteko era desberdinak izan arren, guztientzat erabilgarri izan daitezkeen

Hankak baratze bateko lurrian plantatu eta bizitzarako beharrezko diren jakintza guztiak aise jaso daitezkeela uste du Jakoba Errekondok. Halaxe agertu du asteon EHUKo Uda Ikastaroetan, eskola-baratzeen abenturan abiatuta dauden irakasleak parean zituela. Baratzeari merezi duen tokia emateko urrats interesgarria izan baitaiteke horixe: eskolara eramatea.



erreminta pedagogikoak pres-tatu dituzte EAThink proiektuaren baitan. Oraingoz, hiru liburuxka –lehen, ikas unitateekin; bigarrena, tailerrekin, eta, hirugarrena, eskola baratzearen ingurukoa– eta eskola-baratzeko agenda jarri dituzte mahai gainean. Eta Jakoba Errekondo arduratu da, hain justu, hirugarren liburuxkaz eta eskola-baratzeko agendaz.

EKOSISTEMA KUTURALA

«Baratzea da daukagun herentziarik onena. Gure paisaia kulturala da, ez daukagu paisaia naturalik. Ikusten duguna guk sortua da, gure kulturak sortua. Horregatik herrialde bakoitzak bere paisaia dauka eta bere baratzea. Baratzea ekosistema kulturala da, geuk eraiki dugulako», iritzi dio Errekondok. Bere ustez, kulturaren oinarria lurra da. «Lurra landu izan ez bagenu, ez geundekete hemen. Duela 10.000 urte ez bagina lurra lantzen hasi Txinan, oraindik tximinoak izango ginateke». Horregatik ezinbestekotzat jotzen du baratzeari eta lurra lantzeari merezi duen tokia eta prestigioa ematea. «Hori guztia jakintza da, gaur egun baserritar oso gutxi daukaten jakintza. Eta horri bere balioa eman behar zaio».

Baratzeak bizi duen «desprestigio» horren atzean bada datu esanguratsu bat: baserri gehienetan emakumeak arduratu dira baratzeaz. Horregatik, segur aski, ez zaio eman merezi duen tokia eta garrantzia. «Baratzean denetarik egoten da, ez bakarrik barazkiak. Loreak, sendabelarrak, errituetan erabiltzen direnak, sokak eta lokarriak egiteko landareak, usaineko landareak, zuhaixkak, fruta-arbolak... Horregatik, baratzea lantzen due-

nak denetarik jakin behar du. Jakintza handiko pertsona da eta hori harrotasunez esan beharra dago. Baina normalean emakumeak egiten duen lana denez, garrantzia kendu izan zaio. Horri buelta eman behar zaio», nabarmendu du aditu usurbildarrak.

Baratzeari eta baratzeako lanari duen balorea emateko bide aparta izan daiteke eskola-baratzeena. Norabide horretan topatu dira, azaldu dugun bezala, EAThink proiektua eta Jakoba Errekondo, eta oraintsu kaleratu dute 2018-2019 ikasurterako eskola-baratzeako agenda.

Ekosistema kulturala

Eskola-baratzeak ikastetxeetan egiten dira eta taldean; ikasleek, irakasleek, gurasoek, laguntzaileek... parte hartzen dute proiektu horretan. Errekondok garbi duenez, «baratze bakoitza bat eta bakarra da, etengabe berritzen eta sortzen ari den unibertso bat». Horregatik, oso komenigarri jotzen du baratze bakoitzean egiten den lana ahalik eta zorrotzen eta zehatzen jasotzea. «Eskoletan, gainera, etengabe aldaketak gertatzen dira, irakasleak joan-etorrian dabiltza eta gure baratzean gertatzen dena ondo dokumentatzen badugu, hori oso baliagarri eta mesegarri izango zaie etorkizunean baratzeaz arduratu behar dutenei». Eskola-baratzearen agendak, beraz, modua eskaintzen du baratzeako lana txukun-txukun dokumentatu eta jasotzeko.

Horrez gain, landareei eta baratzeako lanei buruz inguruan jasotako esaerak, ohiturak eta bestelakoak biltzea ere bada helburua.

Jasotzeko ez ezik, emateko ere bada eskola-baratzearen

Alboko orrialdean, Jakoba Errekondo paisajista eta ingeniari agronomoa. Lerroon azpian, haur bat baratze batean behaketan. Andoni CANELLADA Marisol RAMIREZ | FOKU

«Baratzea da gure herentziarik onena. Ikusten duguna guk sortua da, gure kulturak sortua. Herrialde bakoitzak bere paisaia dauka eta bere baratzea. Baratzea ekosistema kulturala da»

«Baratzea lantzen duenak denetarik jakin behar du. Jakintza handiko pertsona. Baina normalean emakumeak egiten duen lana denez, garrantzia kendu izan zaio»

agenda eta astez aste egin beharreko lanen berri ematen du, baita ilargiaren zikloi buruzko informazio zehatza ere. Eta, gainera, baratzearen zaintzan oso baliagarri izan daitezkeen trikimailuak ere eskaintzen ditu.

Baratzea zortzi urratsetan

Eskola-baratzeako agendak baratzea antolatzeke zortzi pauso laburbiltzen ditu, edozein

eskolarentzat baliagarriak diren aholkuak eta pistak.

Baratzea, non? Landareek oinarritzko hiru gauza behar dituzte: lurra, ura eta eguzkia. Izan dadila lurra bizia, ura tainan eta argi ahalik eta gehiena. Ez da komeni ez haize tokia izatea ezta izotza bilduko den bailara zokoa ere.

Lursailik ez den tokietan ere egin daiteke baratzea: terrazan, balkoian, plazan... horre-

tarako ontziak, potoak, mahaiak eta bestelakoak erabil daitezke.

Nolako baratzea? Bigarren pausoan, baratzearen itxura zehaztu beharko da. Toki hezeetan, itsasaldeko Euskal Herrian, adibidez, komeni da lurrraren maila altxatzea, gehiegizko hezetasunari ihes egiteko. Horretarako, mugatutako edo tontortutako taulenak egin daitezke. Toki lehorretan, berriz, sakondu egin beharko da baratzea akaso, ur apurra biltzeko.

Lurrak nolakoa behar du? Garrantzitsua da lurrraren egitura fisikoa. Onena omen da buztina, mala edo mausarra eta hondarra edukitzea, 1-2-2



EATHINK; BERTOKOA JAN, MUNDUA BURUAN

proportzioan. Lurraren izaera kimikoa eta egoera zein den jakiteko, pH-a neurtu daiteke. Neurria otik 14ra doa eta erdikoari neutroa esaten zaio; 7 zenbakia. Landare gehienek pH neutroaren inguruko lurra nahi dute.

Lurrari bizia eman behar zaio, landareak erraz elikatu eta osasuntsu bizitzeko. Horretarako, urtero ongari organikoak gehitu behar zaizkio: simaurra, luarra edo konposta, orbela, lurrustela, zizare-lurra...

Tresnak? Oinarritzakoak. Tresna egokiek lana errazagoa eta seguruagoa egiten dute. Hau izan daiteke oinarritzako tresneria: aitzur txikia, lurreko eskuarena, pala eta eskuzko tresneria. Aparteko materiala ere beharko dugu: hesolak, makilak, lokarriak, ureztagailua, ontziak...

Tresneria behar bezala zaindu behar da: erabili ahala garbitu eta jaso toki aproposan.

Aukeratu hazi eta landare egokiak. Baratzean landareak izateko lau bide daude: hazitegia hazia ereitea, hazia baratzean bertan ereitea, aldaxkak edo begiak landatzea edo landaretxoa eskuratu eta landatzea.

Hortik aurrera, baratzean landareak indartsu eta osasuntsu izateko, oso mesedegarria izango da plangintza egoki bat izatea. Horretarako, txandakatzea ondo antolatzea, barazki bakoitza noren aldamenean jartzea komeni den ikustea eta elkarri laguntzen dioten landareak zeintzuk diren jakitea oso komenigarria da (informazio hori oso garbi jasota dago eskola-baratzeko agendan).

Zer jan nahi dugu? Erabiliko dena bakarrik jartzeak lana asko errazten du. Ondorengoak

dira errazetan errazena diren barazkiak, hasiberrientzat oso egokiak: uraza, zerba, erre-faua, erremolatxa, baba, marrubia, albaka, tipulina, baratxuria eta patata.

Baratzea zaintzeko, zer lan hartuko dugu? Baratze bakoitza unibertso bat dela ulertuta –eta bakoitzeko plangintza desberdina–, honakoak dira lan nagusiak: lurra irauli, landatu, ureztatu, jorratu, lurreztatu, azpiak egin, kimatu eta arbatu.

Azkenik, uzta gozatu. Gozatu baratzeko lanean eta baratzekoak jaten. Ekintza berezia bihurtu behar dugu uzta. Biltzen hasi aurretik, beti garbitu behar dira eskuak eta erabiliko dugun saskiak edo ontziak ere garbi egon behar du. Jasotzen dugunari garrantzia eman behar zaio. Banatu baratzeko mozkinak; jende guztiak eskertuko du zure ahalegina eta, batez ere, partekatu hurrekin baratzeko uzta; hori da etorkizuna.

Baratzearen bitartez gauza asko ikas daitezke eta gaitasun asko landu. Gero eta eskola gehiago ari dira baratzearen aldeko apustua egiten.
GAUR8



“EAThink2015 – eat local, think global” lehen eta bigarren hezkuntzako eskolentzako proiektu bat da, Europar Batasunak bultzatua eta Europako hamabi herrialdetan (Austria, Kroazia, Zipre, Frantzia, Hungaria, Italia, Malta, Polonia, Portugal, Errumania, Eslovenia eta Espainia) eta Afrikako bitan (Burkina Faso, Senegal) martxan jarritakoa. Garapen arloko jarrera kritikoa eta konpromisoa sustatu nahi ditu ikasleen eta irakasleen artean, arreta berezia jarritz elikadura segurtasunean eta burujabetzan, janaria ekoizteko sistema jasangarrietan eta maila txikiko nekazaritzan.

Proiektuaren aurkezpen txartelean zehazten denez, «globalizazioaren dinamikak direla eta, gure aukerek eta ekintzek lotura dute mundu osoko milioika pertsonaren bizitzarekin. Hurbiltasun digitalaren eta informazioaren aroa gorabehera, hor daude kontraesanak eta desberdintasunak: gero eta gizarte globalago baten aurpegiak dira pobrezia, klima aldaketa eta migrazioak».

Proiektuaren baitan hainbat jarduera egin dira –eskoletako baratzeak, tailerrak, ikasleentzako aplikazio multimedia bat, doako hezkuntza materialez betetako webgune bat–, ikasleak eta irakasleak gai izan daitezen gizarte global bateko kide izatearen ardurak hartzeko.



Gaizka Amondarain
Irakaslea

«Debaldeko festa»

1994a zen. ETB1en «Debaldeko festa» izeneko zuzeneko berezi bat ematen ari ziren. Joxerra Gartzia -garaian «Hitzetik Hortzera» saioko aurkezlea zena- gidari lanean eta gonbidatuen artean lau bertsolari gazte: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Jexux Mari Irazu. Bertsolariak performancearen erdian zeudenean, Irazuk esprai bat atera eta “Kalea geurea da, ertzainik ez” pintada egin zuen plato-ko horma batean. Saioa moztu eta iragarkietara jo zuten atoan. Iragar- kietatik bueltan, Joxerra Gartzia Bernardo Atxaga elkarrizketatzen ari zen bitartean, emanaldia eteteko agindua heldu zitzaion aurkezleari. Amatiño zen EITBko burua sasoi hartan, Atutxa Barne Saileko agintari gorena. Gertaerak sortu zuen harrabotsaren ondorioz, “Hitzetik Hortzera” saioa bertan behera geratu zen urte batzuetarako. Pintadarena baino lehen ere, makina bat tirabira izan ziren bertsolaritzari buruzko saioa egiten zutenen eta hedabide publikoko arduradunen artean. Ajuriaeneko Itunaren ondorengo urteak ziren.

Joan den astean jakin dugu, EITBko zuzendaritzak, «Altsasukoak aske» zioen kamiseta jantzita eramateagatik, Laudioko ekoizle bati sukaldaritza saio baterako egindako elkarrizketa zentsuratu zuela. Duela pare bat hilabete, gauza bera gertatu zitzaion Kuartangoko abeltzain bati ere, Espainiako telebista publikoan ematekoak ziren programa baterako elkarrizketa egitera joan zitzaizkionean. Orduan ere, Altsasuko gazteen askatasunaren aldeko leloa paparrean idatzita eramateak ez bide zien grazia handirik egin.

Biak ala biak telebista publiko batean emandako zentsura kasuak izateak larritasun handiagoa ematen die salaketoi. Bata “Euskal Erdiko” telebista publikoan gertatu izana are eta larriagoa da, nire ustez. Zaila baita ulertzeko, herri honen gehiengoak Altsasuko gazteekin egiten ari direna injustiziatzat jo arren, gure telebista publikoko arduradun politikoek horrelako erabakiak hartzea eta gero inork azalpenik ez ematea horren inguruan.

Sentitzen dut bertan lanean ari zareten asko eta askorengatik, badakit kritikez nekatuta egongo zaretela honezkero eta zuen aldetik onena ematen saiatzen zaretela egunero, baina herri honetan bizi garen askorentzat jasanezina bihurtu da gure telebista eta irrati publikoetan gero eta agerikoagoa den lerrokatze ideologikoa. Noiz eta Amatiñoren sasoi- tik 25 urte pasatu direnean. Noiz eta testuingurua erabat desberdina de- nean.

Negargarria iruditzen zait ETaren amaierari buruz ekoitzi den saio txukunena TV3 Kataluniako telebis- ta publikoan ikusi behar izatea eta gurean –Espainiako gainontzeko ka- teetan bezala– bere ibilbidean zehar egindako atentatuetan eta eraginda- ko hildakoetan zentratzea mende erdi iraun duen eta frankismo ga- raian sortu zen erakunde baten his- toria.

Negargarria iruditzen zaidan mo- duan -ez forman bakarrik, baita edukietan ere- espainiar kateeki- ko gure telebista publikoan azken hamarkadan eman den homologa- zio prozesu azeleratua. Eta egoera aztertzeke Gasteizko Parlamentuan lan-talde bat sortzea beharrezkotzat jotzen badut ere, eztabaida publikoa izan behar dela uste dut. Eta horretar-ako, norbaitek pentsatzen badu he- rritarren iritzia ezagutzeko inkesta bat egitea nahikoa dela, debaldeko festa daukagu zati baterako. •



AMONDARAIN

{ koaderno } Amagoia Mujika Telleria

Haiek eta zu

Nola ez dizut, ba, sinistuko? Ez zaitut eza-
gutzen eta, hala ere, badakit kontatzen
duzun guztia egia dela. Egia mingarria,
krudela, nazkagarria. Egia. Eta zergatik
nagoen hain ziur? Ba ni ere emakumea
naizelako eta beldurra pasa izan dudala-
ko; berdin kale bakarti ilunetan eta taberna jendetsu
zaratatsuetan. Ez nengoen han, baina badakit zer pa-
satu zen. Parranda giro hartan topo egin zenuten. Au-
rretik ez zenuten elkar ezagutzen. Gure jendarte ho-
nen bi aurpegi, bi ertz.

Haiek. Kuadrillako laineza matxistan, emakume bat
harrapatu eta taldean bortxatzea helburu hartuta, pa-
rrandaren parke tematikoan beste atrakzio gune bat.
Edana, musika, patata tortilla ogitartekoa, bortxaketa,
txurroak, zezenak...

Haiek. Guardia zibilak, militarrek, futboleko zale su-
tsuak, lehenago ere emakumeak gordin erasotzen jar-
dunak, auzoko betiko kua-
drilla, familia umileko
seme, beso gihartsuak, ile-
apaindegira taldean joaten
direnak, bere “bizitzako
emakumeen” defendatzaile
amorratuak: beren amak,
arrebak, neska lagunak,
emazteak eta alabak «dena-
ren gainetik» jartzen dituz-
tenak. Horiek ez dira nik
ateratako ondorioak –nahiz
eta ez zen oso zaila horra
iristea–, azken bi urteotan
hango eta hemengo komunikabideetan osatutako
erretratua da.

Haiek. Matxismoaren aurpegi gaurkotua eta gomi-
naz orraztua. Haiek. Artean ezer txarrik egin ez dutela
sinistuta daudenak, biktima sentitzen direnak. Klean
bakarrik zihoan emakumea ehizatu zutenak. Hura ez
omen zen beldurtu, ez omen zuen ihes egin, txantxan
aritu omen zen haiekin, berdinetik berdinerara. Eta hori
ezin dute jasan.

Eta zu. Autora lasai abiatu zinena, bakarrik. Ausarta
baino, askea sentitu zinen. Zu, bost kalamidade haien
gorputzak zorrotz irakurtzen jakin zenuena, detaileak
garrantzitsuak direlako. Zu, gertatu zitzaizuna salatu

zenuena eta bi urtez borrokan aritu zarena, indarra
auskalo nondik aterata.

Ez omen zara “sanferminetako neska”. Noski ezetz.
Gure auzoetako eta herrietako emakume gaztea zara;
alaia, askea, feminista, azkarra, bere gorputzaren la-
guna, bere pausajea erabaki nahi duena, sexualitatea
kuadrillako gizona zkoen neurri berean deskubritu eta
gozatu nahi duena, barre lasai egin nahi duena, txora-
keriak libre egin nahi dituen, kontrola galdu nahi
duena, beldurra sentitzeaz nazkatuta dagoena...

Bidean topatu duzu *manada*. Tamalez, ez da solte
dabilen samalda bakarra. Auskalo zer gertatuko den
haiekin. Egia esanda, askorik ez dit inporta.

Benetan axola zaidana zu zara. Jakin dut gozo ingu-
ratuta zaudela eta maite zaituen jendeak laguntzen
dizula zauria sendatzen. Eta horixe da opa dizudana,
senda zaitezela, osa zaitezela eta aurrera segi dezazu-
la, lehenago zenuen pausajeaz. Egin asmo zenituen

Eraso batetik altxatu gaitezke eta
zoriontsu izan. Eta eskerrak. Bi aldiz
krudela eta bi aldiz zapaltzailea da
emakumeari «bortxatua» etiketa
kopetan pegatzen dion jendarte

guztiak egin ditzazula, tronpatzeko beldurrik gabe. Al-
gara bizian egin dezazula barre lasai, sabelean min
sentitu arte.

Izan ere, eraso batetik altxatu gaitezke eta zoriontsu
izan. Eta eskerrak, bestela hainbeste eta hainbeste
emakume ilunera kondenatuta leudeke eta hori ez li-
tzateke justua. Bi aldiz krudela eta bi aldiz zapaltzai-
lea da emakumeari “bortxatua” etiketa kopetan pega-
tzen dion jendarte.

Lehendik sinesten zintudan, zuri gertatua edozeini
gerta dakiokelako eta askori gertatu zaiolako. Orain
zure hitzetan sumatu dut zein indartsua zaren. Orain,
sinesten dizut eta miresten zaitut. •

Egoera jakinen kudeaketa, heldutasuna, sufrimendua iraultzea... Horiexek izan dira Realaren aurtengo arrakastetako batzuk, Patricia Marañaren (Donostia, 1992) esanetan. Liga garaikurra Donostiara ekartzeaz gain, jakina. Jaitsiera postuekin dantzan egitetik, kanporaketa iraulita Lauko Finalera iritsi eta txapelketa irabazi zuten bi *shoot out* saioen bitartez.

Marañak bere egunerokoa-ekin jarraitzen du, garaikurra

eskuetatik aldendu gabe: «Ez dakit noiz ukituko dudan berriro!». Doktoretza tesia egiten ari da uneotan Tecnun Donostiako Goi Ingeniaritza Eskolan –Zeelanda Berrian pasa ziotuen hiru hilabete– eta klubak ulertu behar duen baldintza delakoan dago: «Gure kirola amateurra da eta aurreneko erantzukizuna bakoitzaren lana da».

Barneratu duzue txapeldu-nak zaretela?

Oso zaila da. Agian pixka bat errepikatzen gara, baina talde

honi ez zegokion irabaztea. Ez zen unea oraindik.

Arriskutsua izan daiteke?

Inkonformistak bagara, ez du zertan arriskutsua izan behar. Hori da erantzukizun handiena orain. Hau gertatu da atzean lan bat dagoelako, eta orain ezin gara erlaxatu. Hain talde gaztea izanik, alde batetik kristoren ilusioa daukazu gauzak lortzeko, eta, emozionalki ondo bazaude, ilusio horrek bultzatzen zaitu ondobidera. Baina, aldi berean, gaztea izateak suposatzen du konpromi-

«Talde honi ez zegokion irabaztea, ez zen unea oraindik. Baina inkonformistak bagara ez du zertan arriskutsua izan. Hori da gure erantzukizun handiena orain»

so maila mantentzea zailagoa dela, eta, agian, hain kontziente ez izatea lan hori beharrezkoa dela helburuak edo emaitza onak lortzeko. Eta jakin egin behar da hori nola kudeatu. Lortzen badugu ilusio horrek bultzatzea hobekuntzara, erantzukizun gehiago hartzera, taldeak gorantz egingo du. Bakoitza zenbateraino lan egiteko prest dagoen arabera izango da.

Hainbeste sufrimenduren ostean gehiago disfrutatzen dela diote. Hala da?



«Psikologoaren figura funtsezkoa izan da: dinamika negatibo batean sufritzen ari ginen eta hurrengo urratsa gure arteko eztabaidak izango zirela ikusten genuen»

Nik uste dut sentsazio ezberdinak direla. 2013an irabazi genuen finala, izan zen prozesu baten bukaera moduan. Askotan iristen ginen finalera baina gero galdu egiten genuen. Orduan bihurtu zen zerbait obsesiboa: hori lortu arte ezin genuen deskantsatu. Azkenean, hori lortzea gaineko zama guztia askatzea izan zen. Eta aurtengoa, aldiz, urte guztian zehar kolpe mordoa jaso ondoren heldu da. Lanean ondo ari ginen. Galdu ditugun neurketa asko talde heldu bat ez izateagatik galdu ditugu. Eta, hori gertatzen denean, sartzen zara dinamika batean zeinetan zaila den ikustea egiten zabil-tzan lana ona dela eta horrela jarraituta emaitzak etorriko direla. Hori guztia pasatu ondoren, horri buelta ematea eta bukatu dugun moduan bukatzea... Horregatik esaten dugu zaila dela barneratzea. Hain dinamika eskasean egon gara, non hori iraultzea posible izan dela ikustea izugarria den.

Eta zer uste duzu pentsatzen dutela Club de Campok (liga erregularra lehen postuan bukatu zuen), Polok (bigarren sailkatua) edo Juniorrek (lau-garren sailkatua)?

[Barrezka] Pentsakor egongo dira. Baina nik uste dut formatu aldaketak ere eragina badiuela. Zer lortu nahi da aldaketarekin? Erregulartasuna edo une zehatz batean hobe dagoen taldea zein den jakitea? Guretzako edo hainbeste maila ez duten taldeentzako onuragarri izan da formatu al-daketa. Derrigortzen zaitu bu-kaera arte adi eta motibatua egotera. Bestela, ikusten badu-zu sailkapenaren erdian ez go-ra ez behera zaudela, ez zara gehiago saiatzen. Egia da, hala ere, aurten gertatutakoa ez de-

la ohikoa. Lehenengoak, Club de Campok, 50 puntu zituen eta partidarik galdu gabe zen.

Zuek lau neurketa irabazi ze-nituzten liga erregularrean.

Bai [barrezka]. Pentsa, Club de Campok guk baino hamabi neurketa gehiago irabazi zi-tuen liga erregularrean; bi ber-dinketa salbu, bat gure aurka eta bestea Taburienteren au-rka, partida denak irabazi zi-tuen. Noski, ez da bidezkoa. Orain Europara gu goaz. Baina tira, formatua formatua da.

Zuek presiorik gabe iritsi zi-neten azken fasera. Onuraga-rria izan da zuentzat.

Bai. Uste dut inflexio puntu bat izan zela final laurdeneta-ko neurketa. Madrilerako joan gi-nen SPV Complutense taldea-ren aurka jokatzeko, eta, lehen partida 0-1 irabazten joan ba-ginen ere, bost minuturen fal-tan markagailua irauli zuten (2-1). Bigarren neurketan be-raiek hasi ziren irabazten, hau da, kanporaketa osotara 3-1 ze-goen. Batak besteari begiratu eta pentsatu nuen: «Edo joka-tzen hasten gara edo bost gol jasoko ditugu». Azkenean, ho-rrek psikologikoki eragina du. Pilak jarri ezean kanporatuak izango ginen. Giltza izan zen segituan sartu genituela bi gol, kanporaketa parekatuz. Hirugarren eta laugarren za-tian gai izan ginen erritmoari eusteko eta beraiek ez. Pentsa, ligako aurreneko jardunalditik ginen lau gol sartu gabe...

Hori ikusita, Lauko Finalera iristean edozer gerta zitekeela pentsatu genuen. Gure egite-koa beti egon da argi. Agian jendea harritu egiten da lortu-takoarekin, baina nik Realean daramazkidan bederatzi den-boraldietan beti jokatu izan du Lauko Finala edo unean uneko

azken fase hori. Egon dira tal-de hobeak, talde okerragoak... baina Reala beti egon da hor. Badakigulako lehiatzen, eta ez daukagulako arazorik neurke-ta itsusi bat egin behar bada interesatzen zaigulako, egite-ko. Zentzu horretan finalean gehiago sufritu genuen Junio-rren aurka. Beraiek aukera gar-biak izan zituzten. Baina, tira, Maiderek [Altuna] gola sartu zuenean argia piztu zitzaigun.

Ezustekoz ezusteko aurrera eginda finalera iristen zare-nean, nahikoa da edo finalak beti nahi dira irabazi?

Bigarren itzulian egon gara lan egiten psikologo batekin. Etorri zen gurekin azken fase horretara, eta finalerdiaren eta finalaren aurretik egin geni-tuen saio batzuk. Bakoitzaren ideiak taula batzuetan idatzi genituen eta horietako bat zen ez konformatzea. Hau da, oso ondo dago egin duguna, seiga-rren izanda kanporatu dugu hirugarrena, gero bigarrena... Errazena litzateke finala gal-tzen hasiz gero amore ematea. Bigarren geratzea ere ez dago gaizki, ezta? Baina lan mental horrek eraman gaitu gure au-keretan sinisterra, inongo za-lantzarik eduki gabe. Esaten duzunean oso sinplea dirudi, baina gero ez da hain erraza si-nistea, benetan barneratzea. Sinisten ez baduzu, kolpe bat jasotzean, gezur hori lurpera-tu egiten da. Baina benetan si-nesten duzunean zure aukerak izango dituzula, nahiz eta bes-te taldea teorikoki hobeia izan eta kolpe aunitz jaso, tematu egiten zara, behintzat aukera bat sortu eta aprobetxatzeko. Eta horixe gertatu zen. Biz-pahiru aukera egin eta bat sar-tu genuen, gainera, errebotetz; beraiek sartu zuten beraien atean, baina sartu egin zen.

PATRICIA MARAÑA

BELAR HOCKEY JOKALARIA

Zurriola ikastolan hasi zen belar hockeyan eta duela 9 urtetik ari da Realean. Bere bigarren liga eskuratu du aurten eta, 25 urterekin taldeko beteranoetarikoa izanik, erantzukizunak hartzea egokitu zaio. Lehen itzuliko sufrimendua irauli ostean, bederatzigarren liga irabazi du Realak.

Ane Urkiri Ansola

Psikologoaren figura aipatu duzu. Nork eskatu zuen?


Nik uste dut beharra nabaritzen zela. Dinamika negatibo batean sartuta geunden, eta, gurea, talde gaztea da oso.

Errealaren jaisteko arriskua?

Bai, bai. Argi zegoen. Normalean gure taldea taula erditik gora kokatuta izan ohi da, ez daukagu esperientziarik horrelako egoerak kudeatzen. Hori alde batetik. Beste alde batetik, lehenengo itzulian bukatu genuen zortzigarren, gainera, bigarrenean Olatz Goñi eta ni kanpora gindoazen eta kanpoko fitxaketa batzuk etorri behar ziren. Eta ez dakizu aldaketekin maila jaitsiko den edo ez, ezagutzen duzun jendea ezagutzen ez duzunagatik aldatzen baita. Eta dinamika negatibo batean sartuta zaudenean gainera... Jendeak gehiegi sufritzen zuela ohartuta geunden eta hurrengo urratsa gure arteko eztabaidak izango zirela ikusten hasita geunden. Hori guztia baloratuta, taldeak esan zuen agian behar genuela kanpotik zetorren laguntzaren bat. Psikologoaren figura funtsezkoa izan da. Esperientzia gabeko jokalariei emozio kudeaketa hobetzen lagundu die eta guztioi erraztu digu bide berean kokatzea. Mundu guztia helburu berari begira izatea, alegia. Bestela, berekoikerietan sartzen ginen... Eta jaisteko zaudenean horrek ez du balio, taldeak zer behar duen aurkitu behar da, taldeak zuregandik zer behar duen jakin behar da.

Talde lanean garrantzitsua izango da albokoak zer pentsatzen duen jakitea.

Pertsonak ere ezagutu egin behar dira, eta, ni adibidez, oso gardena naiz, liburu ireki bat.



Juan Carlos RUIZ | FOKU

Eta badago jendea ez dena horrelakoa, horregatik, normal ikus dezakezun bati gehiago exijitzen diozu; baina horrelako saio batean ohartzeko zara pertsona horri oihu egiteak ez duela balio. Ikasten duzu tentsioko uneetan albokoei, bakoitzari, behar duena ematen.

Askotan beteranoei dagokie oihu horiek egitea.

Lagundu digu enfokatzen nola esan gauzak, ze momentutan esan, nola esan... Nik ikasi behar dut gauzak esateko mo-

duak kudeatzen. Beste pertsona batzuei gehiago kostatzen zaie gauzak esatea eta barruan eramaten dute frustrazioa. Bakoitzaren lekua aurkitu eta ezagutzea oso zaila izan zen lehen itzulian. Zeelanda Berritik itzultzean igarri nuen jendeak gehiago aditzen zidala. Arreta gehiago jarri eta ikasteko grina zutela konturatu nintzen.

Nabarmentzekoa da gehienak etxekoak zaretela.

Aurten ere egon egon dira kanpotarrak. Orain, agian, ez-

berdin dena da taldearen pisu handiena etxekoena dela.

Eta zer aldatu da bederatzi urteotan, hau da, 2009tik?

Zubietan zerbitzu medikuak oso eskura ditugu gaur egun. Lehen zailagoa zen minen bat edukiz gero Realeko fisio edo medikuengana joatea.

Hobeto zaudete egun, beraz.

Bai, baina hor dago oraindik zelaiaren aferra. Muga izugarria daukagu, *tetris* moduko bat da ordutegiena! Esaterako,

«Bakoitzaren lekua aurkitu eta ezagutzea oso zaila izan zen lehen itzulian. Zeelanda Berritik itzultzean igarri nuen jendeak gehiago aditzen zidala»



asteazken batean aurkitzen dituzu txikiak entrenatzen, handiagoak txikiak erabiltzen ez duten izkina batean beroketa lanak egiten, mutilak lan fisikoa egiten beste hegalean...

Eta ez duzue inoiz eskatu Zubietan zerbaitegitea?

Bai, noski. Eta berez badago proiektu bat. Beti esaten digute baietz. Orain badirudi hipodromoan egin behar dutela zerbaite. Aurreko astean egon ginen Foru Aldundian eta baietz diote, baina ikusi arte...

«50 best»

Joxean Agirre

Pasareletako modeloek eragiten duten frustrazioen antzekoa sorrarazten digute azkenaldi honetan eliteko euskal sukaldari batzuek: txundigarriak dira, ia-ia perfektuak, baina urrunak eta eskurgaitzak. Hamabost urtetik gora dira Mugaritzen edo Etxebarrin izan ez nai-zela, The World's 50 Best Restaurants lehiaketa martxan jarri zenetik hain zuzen.

Badakit bikaintasuna ez dagoela de-non esku. Aldizkarietan auto batek otik 100 kilometrotara 10 segundotan azeleratzen duela irakurtzen dudanean harriturik gelditzen naiz, nireak bost bat minutu behar izaten baititu.

Etxebarrin orain 25 urte justu izan ginen lehen aldiz, koinata bat ezkondu

zenean. Artean Bittorrek ez zuen zerrenda horien berririk. Bizkaian ez dira txikikerietan ibiltzen eta urtemuga ospatzeko berriro Etxebarrira joan behar genuela sartu zitzaaien buruan. Niri ideia ona iruditu zitzaidan. Ordainketan kolaboratzeko ere prest agertu nintzen, baina ezetz erantzun zieten, mahai txikiekin bakarrik lan egiten dutelako orain. “Gure kasa” saioan esan berri duenez, hiru hilabeteko itxaron zerrenda du eta amerikarrek eta asiarrek betetzen diote jangela. Mugaritzera goizeko hegazkinean etortzen dira Londresetik eta arratsekoan joan.

Abuztuko oporretan Modenatik pasatuko ginela jakinik, ahalegin bat egin behar genuela pentsatu nuen Osteria

Francescana bisitatzeko, bigarren aldiz zerrenda famatuko lehen postura igo dela kontuan izanik. Frantziskotarrak sinpatikoak egiten zaizkit. Pello Zabalgatik izango da beharbada. Osteria frantziskotar batean era guztietako jendea hartuko dute, nioen nirekiko. «Ezin da –erantzun zidan emazteak–. Atzo egon nintzen begira eta hiru hila-beteko itxaron zerrenda dauka eta bakoitzak 250 euro ordaindu ditu zerrendan egoteko».

Askoz ere demokratikoagoa iruditzen zait Michelin gida: hiru izarreko batera joan ezin denak bi izarrekoen aukera du edo izar batekoena. Donostian bertan dozena erdi bat izar bateko egongo dira, nire frustrazioak uxatzeko modukoak. Gaitz erdi. •

«Desbiana»

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Bai, nahi bezala idatzi dut eta zuzen irakurri duzue: “desbiana”. Halaxe deitzen omen die gure herriko 90 urtetik gorako amona batek neskak gustuko dituzten neskei. Bilobak kontatu zidanean sekulako grazia egin zidan. Seguru asko, amona horrek lesbiana zuzen ahoskatzen ez duelako esaten du horrela, baina horrela esanda hitzak duen zentzuak uzten baitu umore beltzerako tarte ere. Areago, amona horren ustez, «hobe da ‘desbiana’ izatea, minbizia edukitzea baino».

Laurogeita hamar urtetik gorako amona batek esandakoa izateko, ez da astakeria handia. Kontuan izanda, herri berean, belaunaldi kide ditudanak hark baino pentsamolde atzerakoia goa dutela. Herriko aulki bat LGTBI harrotasunaren banderaren koloreekin margotze hutsak asaldatzen dituela. Edo festetan “Matxiruloak sutara” dioen pankartaren esanahia ulertzen ez duten itxurak eginda, neskak azalpenak ematera behartzen gaituztela. Sakonean, ulertzen ez omen duten pan-

kartan islatuta sentitu direla badakite-nean.

Astakerien artean, halaxe joan da aurtengo Sexu Askapenaren Aldeko Nazioarteko Eguna. 2016ko sanferminetako talde bortxaketagatik zigortutakoak baldintzapean aske utzi dituztenean. Ondarroan konorterik gabeko emakume bat bi gizonen bortxatu zutela entzun dugunean. Eta sexu askapena sustatu ordez, erakundeek, LGTBI harrotasunaren banderarekin, ikuskizun diruz garesti eta edukiz merkeak estaltzen dituztenean. •



Juanan RUIZ | FOKU



IKUSMIRA

EURAK ETA GU?

Aurrera egin dugu. Gaur egun -ez horren aspalditik, ordea- homosexualitatea edo transexualitatea ez dira gaixotasuna, ez arimakoa, ez gorputzekoa. Gaur egun LGBTI kolektiboko lagun asko ezagutzen ditugu... baina oraindik ere, «baina» ugari iristen zaizkigu gogora, eta, inguru «aproposean», ahora. Gaur egun edozein filmetan agertzen dira LGBTI kolektiboko lagunak naturaltasun osoz... ukitu progrea edo komikoa emateko osagarri gisa. Gaur egun jendartean onartuta daude, baita, neurri batean, legeetan ere, baina oraindik ere nerabe transexual baten suizidioak edo LGBTIfobia oinarri duten erasoek asaldatu egiten gaituzte maiz, maizegi.

Aurrera egin dugu, zalantzarik gabe. Gizarte hobea dugu, ez dakit justuagoa baina bai justiziazaleagoa, eurrei esker. Aurreiritziak eta tabuak hausten goaz edo, hobeto esateko, eurek hautsi dizkigute. Eta eurek erakusten duten harrotasun bera erakutsi beharko genuke, euri eskerrak ematearekin batera. Harrotasun bera borroka bereko kide gisa, helburu berbera ipar. Eurak ere gu direlako, gu ere eurak garelako. Xabier Izaga



Mikel Buruaga, Gindi Auzmendi eta Iñaki Landa, dokumentala bukatu berritan. Juanan RUIZ | FOKU

infraganti

GINDI AUZMENDI, IÑAKI LANDA ETA MIKEL BURUAGA

Urtebeteko lan trinko eta biziaren ostean, «Orainaldian. Laissez faire» dokumentala aurkeztu zuten duela hilabete Auzmendi, Landa eta Buruagak. Atsedenaldia hartu dute, baina ez oporrik. Zeinek bere lanean jarraitzen dute, baina beren lanaz eta ibilbideaz patxadaz hitz egiteko astia hartu dute, «solasalditxoak» luze jo du eta. Gustura asko, baina.

Komunikazioa, kultura eta herri mugimenduak elkarretaratuta, “Orainaldian. Laissez faire” dokumentala aurkeztu berri dute, lan urte trinko baten ostean. Zeinek bere lanean jarraitzen du, baina «Gasteiztik atera gabe ere istorio pi-

la bat kontatzeko» dagoenez, elkarrekin gauza gehiago egiteko asmoa dute.

Iñaki Landak kazetaritzan jardun izan du aspalditik. Gaur egun ARTgia Sorgune Aretoa kudeatzen du Irantzu Lekuerekin batera. Hamaika herri mugimendutan, hamaika proiektutan parte hartu izan du, baina dokumentala bukatuta-

koan hartu duen lasaituak ez dio master bukaerako lana prestatzea ahanzarazi.

Gindi Auzmendi punk-rock talde batean hasi zen duela hamar bat urte eta, onartzen duenez, horrek bere bizitza osoa baldintzatu du. Soinua eta Komunikazioa ikasi ondoren, Gasteizko kontrakulturari buruzko dokumental saiakera pare batean parte hartu zuen. “Orainaldian” proiektura sartu zenean, Hala Bediko Hala Bideo kanalean ere hasi zen soinu lanetan, eta bertan jarraitzen du, rocka utzi gabe, ordea. D-Tox (Distorsión Tóxica) taldean abestu, gitarra jo eta letrak egiten ditu. Otsailean grabatu eta autoekoitzi zuen bere

an, ez zetozen bat kulturgileen sektore baten diskurtso ezkorrekin, Gasteiz kulturari dagokionez hiltzen ari zela zioen diskurtsoarekin, alegia. Dioteenez, «kulturizidioa» aipatu izan zuten batzuek. Eurek, ordea, oso bestelako errealitatea ikusten zuten. Mundu horretan murgilduta, beren agendak gero eta beteagoak zeudela diote, «gauza asko egiten ziren, nahiz eta instituzioek, krisi egoeraz baliatuta, laguntza guztiak moztu zituzten».

Murrizketak arlo batzuetan bakarrik izan zirela zehaztu du Gindik: «Kultura aurrekontu gehienak Azkena Rock musika jaialdira eta Telebista Jaialdira joaten dira, eta horiek ez dituzte moztzen». Instituzioen jarra deitoratuta ere, «hari esker» ehun kultural berria sortu dela diote, krisialdiak abagunea ekarri zuela kultur espazio txikiak sortzeko.

ORAINALDIAN

Beren proiektua Udaleko Gazte Sortzaileak programara aurkeztu zuten, baita beka lortu ere. Proiektuaren lehen pauso gisa, egitarau ofizialetan agertzen ez diren kultur guneak ezagutarazteko asmoz, gune horiek kuantifikatu eta haien balioa nabarmendu zuten. «Badaude mapa pilo bat, eta ez autobus geltokienak bakarrik. Badira gozo-dendarik onenenak, pintxoena... baina kulturarenik ez zegoen», dio Iñakik, eta Mikelek ñabardura bat erantsi du: «Kultura mapak ere egon badaude, museoak eta gune ofizialak jasotzen dituztenak baino ez, ordea». Eta Gasteizko kultura alternatiboaren mapa osatu zuten, gutxienez 80 erreferentzia gune jasotzen dituen.

Ondoren, zubi lana eginez, gazte sortzaileek elkarren berri izan zezaten, Sinergia Gu-

taldearekin laugarren diskoa, “Demolición”.

Komunikazioa ikasi zuen Mikel Buruagak ere, Ikus-entzunezkoa. Info7 irratian lan egin zuen soinu teknikari, eta, ondoren, Hala Bideo kanalean, gaur arte, «kalean, Gasteizko aktualitateari begira». Begira eta inoiz jasanda ere bai, Errekaleor auzoan argindarra kentzera joan zirenean, Ertzaintzak “mortal legea” ezarri baitzion bere kazetari lana egiteagatik.

«Hau guztia pixka bat jakinminez hasi zen», azaldu du Iñaki Landak. Gasteizen sormen lekuak edo kultura sustatzen zuten lekuak bazirela ikusi zuten, leku txiki asko. Aldi bere-



Urte «trinko eta bizi» baten ondoren, atsedenaldia hartzeko prest daude Gindi Auzmendi, Iñaki Landa eta Mikel Buruaga. Juanan RUIZ | FOKU

nea abiatu zuten, «errealitate- en eta pertsonen arteko nodo- ak sortzeko». Eta leku horieta- ko gazte sortzaileen istorioak kontatu beharra zeukatela konturatu ziren. Proiektua ha- si aurretik bururatzen zitzaiz- kien protagonista gehienak 50 urtetik gorako lagunak zirela diote, eta topatu zuten erreali- tateak «belaunaldi berri bati leihoa edo atea zabaltzeko apustua» egitera eraman zi- tuen. Iñakik dioenez, Gindik dauka horren «errua».

Haien hasierako ideia erre- portaje txiki bat egitea zen, erreportaje experimental izan- go zela esan zuten, hamar mi- nutuko bideo bat zenbait isto- rio biltzeko. Baina elkarriketak egiten hasi ziren, bakoitza ordu erdikoa edo, eta haietatik «hari pila bat» atera zen. Hari haieta-

tik tira eginez hiru istorio kon- tatzeko asmotik bederatzi kon- tatzekora heldu ziren eta, azke- nean, guztira, hamabi izan dira.

Istorioen protagonistak hauek dira: Ane Gebara ipuin kontala- ria, Mikel Kttulu Cosmic Tentacles jaialdiaren sortzailea, Be- ñat Goitia mu- sikaria, Paul eta Izaskun Urkijo zinegi- lea eta arte zu- zendaria, Irantzu Lekue artista eta muralista, Iker Fidalgo arte kritikaria, Friki eta Ojodekuer- vo grafitigileak, Gasteiz Hard- core Crew kolektiboko kideak,

Hasierako ideia erreportaje txiki bat egitea zen, hamar minutuko bideo bat zenbait istorio biltzeko. Baina hiru istorio kontatzeko asmotik hamabi kontatzekora iritsi ziren azkenean

Dokumentaleko protagonisten ideia nagusietako bat «sareak josi beharra» da. Belaunaldi sortzaile berri bat sumatzen dute, baina baita haien artean sinergiak sortzeko zailtasunak daudela ere

Lurburu talde artistikoko kide- ak, Eider Bernaola argazkilaria, Reina Ginolanda idazlea eta Ne- rea Mauleon ilustratzailea. «Ba-

koitzaren dis- k u r t s o a besteenaren osagarria zen, ideiak elka- rren osagarri, eta azkenean denak bildu ditugu ideia oso batean», dio Gindik. Ideia horren ikus p u n t u guztiak batu- ta, esku arte-

an dokumental bat zegoela iku- si zuten. Gasteizko kultur guneen argazki bat egin nahi zuten, eta gazte sortzaileen bila joan ziren, «aztarrika». Oso

errealitate desberdinak topatu dituzte, haietako gehienak er- tzetatik, marjinetatik sortzen duten lagunena, batzuk modu profesionalagoan, beste batzuk modu autonomoagoan, kontra- kulturaren presentzia nabar- mena dela. Hamabi istorio eta beste horrenbeste motibazio.

Hamabi istorio gehiegi irudi- tzen zitzaizkien dokumental batean sartzeko, eta nahiko modu trinkoan sartu omen di- tuzte. Baina uste dute horrela hobeto ordezkatzeko dutela gaz- te belaunaldi sortzaile berria, gainera, arte eremu ugari har- tuta, diziplina gehienak.

ZENBAIT ONDORIO

Belaunaldi berriak emakumeen presentzia askoz handiagoa du eta euskalduna da. Horiek dira haren ezaugarri nabarmene- nak. Euskararen eta euskal kul- turaren sustapena dira garatu duten alderdietako bat, batez ere Beñat Goitiaren bidez. «Us- te dugu nahiko irudi fidagarria ematen duela»: Gasteizko kafe antzokiaren beharra, gazteen ezagutza eta beren sormena bat ez datozela... Bi kasu daude- la diote, euskaraz ondo jakinda gaztelaniaz edo ingelesez sor- tzea erabaki dutenak, eta, egu- nerokotasunean erabili gabe ere, sorkuntzan euskararen al- deko apustua egiten dutenak.

Profesionaltasunari dagokio- nez, badira sormen lanetik bizi diren batzuk. Bi ikuspegi jaso dituzte alderdi horri dagokio- nez, «biak ere oso zilegizkoak». Bestetik, haien sorkuntzan aniztasun handia sumatu dute, kultur askoren eragina eta kul- tur horiekiko harremanak.

AURRERA BEGIRA

Istorio guztiak hiru ardatzen inguruan egituratu dituzte. Le- hena, «motxila», bakoitzaren sorkuntza prozesuaren azalpe- na: zer egin duen, nola, zerga-

tik. Bigarrena, Gasteiz-kultura, eta instituzioak-kultura binomioak. Eta hirugarrena, aurrera begira, zer?

Azken ardatz edo blokeko ideia nagusietako bat «sareak josi beharra» da. Gasteizen belaunaldi berri bat dagoela sumatzen dute, baina baita nahikoa sakabanatuta dagoela ere, eta, beraz, haien artean sinergiak sortzeko zailtasunak daudela. Hain zuzen ere, hiru gasteiztarron proiektuaren lehen balioa belaunaldi hori identifikatu eta agerian jarri izana da. Mikelek dioenez, nolabait erakutsi dute historia amaitu delako ideia postmodernista, «dena asmatuta dagoela eta abar», faltsua dela.

Dokumentaleko protagonista batzuek egiten ari direna egiten jarraitu nahi dute, besterik gabe; beste batzuek beren asmoak eta azpiegiturak hobetu nahi dituzte, eta beste zenbaitek instituzioen paperak aldatu beharko lukeela uste dute, baina aldatu arren, abian dagoena ezin dela hil, dirurik gabe ere sortu egin beharra dagoela.

NOSTALGIAREN AURKAKO MANIFESTUA

Dokumentalaren izenburuak ondo laburbiltzen du egileen asmoa. Erreferente zaharretara jo beharrean, oraingoa, gazteak jartzen ditu lehen mailan. «Gauzak egiteko, batzuetan, nerabeekin gertatzen den moduan, gurasoei begira egon gabe, kalera atera beharra dago. Nolabait errespetu hori hautsi egiten da, eta hori ere beharrezkoa da pertsonalitatea garatzeko eta zure bidea bilatzeko», azaldu du Iñakik. «Gero, batzuk igual aspertu eta etxera itzuliko dira, baina bide hori egiten duten bitartean gauza berri-tzaileak sortuko dira».

Paradigma aldaketa eskaini omen zuten beren maparekin,



Dokumentalaren kartela. «Orainaldian»

«Nerabeak bezala, gurasoei begira egon gabe, kalera atera beharra dago. Nolabait errespetu hori hautsi beharra dago pertsonalitatea garatzeko eta zure bidea bilatzeko», dio Iñakik

Liberal frantsesek erabili zuten leloa, «laissez faire» –eurak liberalak izan gabe–, kultur arlora ekarri nahi dute, beren bidea modu autonomoan egiten ari diren gazte sortzaileei egiten uzteko

«errelatoa izan daiteke, ordu arte diskurtso bakarra baitzegoen». Gindik dioenez, Gasteizen ganean hitz egiten denean, beti agertzen omen dira 80ko kontuak: orduko punk eta rock taldeak, Hala Bediren eta gazte-txearen sorrera... «eta horren guztiaren ajea», erantsi du Mikelek. Hori guztia oso garrantzitsua dela diote, baina gainbehera aldiak izan badira ere, gauza

garrantzitsuak gertatu direla, esate baterako, teknologia berriak tarteko. «Hala Bediren sorrera oso garrantzitsua izan zen 1983an, baina baita ondoko urteetako haren bilakaera ere». Horrenbestez, orainaldia aldarrikatzen dute beren «nostalgia-aren aurkako manifestuan».

«LAISSEZ FAIRE»

Azkenaldion Gasteizko Udala tabernetako eta beste lokal batzuetako kontzertuen aurka egiten saiatu da, baina atzera egin behar izan du. Ordutegiari eta aseguruiei dagozkien baldintzen inguruko akordio batera iritsi dira, baina ezin izan dituzte kontzertuak mugatu, eta hiru gasteiztarron dokumentalak sustatu duen «saretzeak» zerikusi handia izan du emaitza horretan. Dokumentala, orainaren apologia ez ezik, egiten ari denari oztoporik ez jartzeko aldarria ere bada. Horregatik liberal frantsesek beren garaian erabili zuten leloa, *laissez faire* –eurak ez direla liberalak argi utzita–, kultur arlora ekarri nahi dute, beren bidea nahiko modu autonomoan egiten ari diren gazte sortzaileei egiten uzteko. Horra, bada, «gauza txikien balioaren argazki bat», hemen gauza txiki asko sortzen direla kontuan izan «eta Azkena Rocketik eta Artiumetik harago ere badela sor-kuntza aldarrikatzeko».

Aurrera begira, ba omen dituzte zenbait ideia buruan elkarrekin beste zerbaitegiteko. Mikelek ez du baztertzen fikzio-ra jotzea ere. Edonola ere, momentuz, atsedenaldirik baten ostean, beren filma festibaletan aurkezteko aukerak aztertuko dituzte. Gindi, Iñaki eta Mikel, orainaldian eta aurrera begira, nostalgiarik gabe. •

Xabier Izaga Gonzalez



Ana Elosegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Bizikidetzaren suaren
inguruan dantzan

Bizikidetza egitasmoen ondorio kuantitatiboak neurtzea oso zaila da. Ekainean balorazio bilerak eta txostenak izaten ditugu gurean, ikasturte-

ko lanen emaitzak eta prozesuak aztertzeko garaia baitugu udalekin, eskoletako guraso elkarteetako kideekin... Normalean irakasleek asko eskertzen dute egitasmoak abian jartzea, beraiei egunerokotasunean jarraibide eta gako batzuk eskaintzen baitizkiete. Bestalde, udaletako ongizate sailak prebentzio arloan ere lan handia egiten ari dira, eta zer esanik ez Gipuzkoako Aldundia arreta goiztiarraren eremuan.

Azkenaldian, tamalez, gurasoen-gandik jaso izan ditugu mesfidantza gehienak: «Zertarako balio dute egitasmo hauek? Onurak antzematen al dira? Zeini egiten diete mesede?». Horrelako galderak eta kezkak ohikoak dira. Kontsumoan eta kanpo irudian oinarrituta dagoen jendarte batean bizi garenez, dena azkar lortzearren haurrak hiperaktibitatean ohitzen ditugu txikitatik: maila handia exijitzen diegu, baina, aldi berean, beraiekin denbora gutxi partekatzen dugu.

Jendarte honetan bizi garenontzat elkar laguntzea eta kidetza lantzea oso kontzeptu arraroak dira, horregatik asko landu behar ditugu, galdara guztiak erantzunez. Urrutiko baloreak landu nahiko bagenitu bezala, utopiak!

Egunerokotasunak esaten digu gletan berdinin arteko harremanetan zailtasunak gero eta handiagoak direla. Izan ere, Berritzeguneetako tekniko eta adituak, eskola eta ikastoletako aholkulari zein orientatzaileak gainezka daude!



Bizikidetza lantzen duten egitasmoek mesede handia egiten dute.

GAUR8

Bizikidetzan oinarritutako egitasmoek prebentzioa lantzen dute. Hala, haur batengan zailtasunak detektatuz gero, haurrari berari laguntzea eta eskolan gustura egotea dute helburu. Nola? Bere gaitasun guztiak indartuz eta egun dituen zailtasun eta hutsuneak landuz etorkizun ezberdin bat eraiki asmotan, bide batez jendarte ezberdin bat taxutuz! Horixe da prebentzioaren helburuetako bat: jendarte sanoago bat eraikitzen joatea.

Baina gurasook askotan ez ditugu Bizikidetzako Behatokiak sortu nahi, bertan zer hitz egingo den beldurrez, nolako interbentzioak egingo diren beldurrez, gure familiako trapu zaharrak aterako diren beldurrez. Askotan ez baikaude gure zailtasunak lantzeko prest. Ez garela-ko inorekin fidatzen!

Sua piztu, sua mantendu eta suaren inguruan dantzan ibiltzen gara. Askotan, baina, ez gara ohartzen suak erre egin dezakeela, eta, era berean, denon arteko dantza elkartuak su asko itzaltzen dituela jakin gabe aritzen gara.

Bizikidetzaz egitasmoen baitan haurrei eskoletan arreta eskaintzen zaien denbora gutxian izugarrizko garapena egiten dute, beraien besarkada eta irriekin eskertuz.

Ekimen mordoak daude oso ondo funtzionatzen dutenak: adituekin egindako jarraipen bilerak, guraso eskolak, ikasleekin egindako banakako aholkularitza saioak, familiekin lan sistemikoa eskolan, behatokiaren sorrera eta ikasle laguntzaileen rola... Horietako asko urteetan martxan dabil-tza herri eta leku askotan! Denon arteko bizikidetzak pertsona hobeak egiten gaituelako. •

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. MARIN FUNTSA. PASCUAL MARIN

SAFARIA OTE... ONDARRETAN?

1923. urtearen bukaeran frantziar jatorriko Palise zirkua Amarako parkean jarri zuten, Donostian. Emanki-zun guztietan betetzen zen, eta, bere animalien artean, bost elefante zituen zirkua, Hanburgoko Parke-tik zetozenak. Haien hezlea Madame Boudix zen, sasoiko hedabideek ziotenez. Elefanterik beterranoena eme bat zen, Puntchy, 125 urtekoa eta lau tonako pisua zuena. Goizero hiria zeharkatzen zuten Ondarretako hondartzako uretan bainatzera joateko, besteak beste, Kontxa pasealekutik eta Askatasunaren hiri-bidetik igaroz. Ontziak eta ikusnahiak elefanteen bainuaren ikuskizunera hurbiltzen ziren. Ondarretako hondartzan elefanteak bainuan ageri diren argazki hau Pascual Marin nafarrak 1923ko uztailaren 30ean egindakoa da. Marinek denda bat zuen Donostiako Garibai kalean, eta zenbait hedabidetako berriemaile grafikoa ere bazen, besteak beste "El Pueblo Vasco" egunkarikoa.

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



SPLIT

Kondaira eta ipuin zaharretatik aterea

Hamasei mende geroago, turistek erromatar soldaduei lekukoa hartu diete, Kroaziako hiri honi darion historiak, klimak, edo "Game of Thrones" filmatzeko erabilitako jokalekuak erakarrita.

Eta gainera: Munduaren azken muturreko uhartea, Tasmania • Portugaleko gazteluetan barna

• Gainekogorta, mendia hirian • Uztail eta abuztuko jaialdi eta festen zerrenda zehatza...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

